

Zeinkek atzen kontzertua eskainiko dau abenduaren 13an Karabie Gaztetxean

Hamarkada bateko ibilbidearen ostean, Zeinke taldeak abenduan egingo dau atzen agurra, hainbeste urtez taldearen etxe izan dan Lemoako Karabie Gaztetxean. Kontzertua 23:00etan izango da, doban, eta aurretik Pablo Runtogetherren pintxadea eta gero, DJ Agata Lagatak ipiniko dau musikea. **20. orrialdea**



Euskerearen Eguna ate-joka



Abenduaren 3a da Euskerearen Nazinoarteko Eguna eta hau ospatuteko, ekitaldi eta galak egingo dira egunean bertan Arantzazun, Artean, Areatzan, Diman, Igorren, Lemoan eta Zeanurin. Horrez gainera, inguruko egunetan Arratia, Zeberio eta Ubideko udal guztiek antolatu dabez kultur jarduera eta berbaldiak, euskereari bultzadaxoa emoteko. 24. Korrika be hasi da motorrak berotuten, martiaren 19tik 29ra izango da, Atharratzetik Bilbora. **9. orrialdea**

Oparotasunaren itzala: errenten erradiografia

Tokikomeko komunikabeok eta EITBk, Hego Euskal Herriko errenta arrakalen gaineko erreportajea landu dogu, Saretzen ekimenaren bitartez. **10. eta 11. orrialdeak**



ARRATIA

III. Enplegu Azokea Igorren

Errota Fundazioak antolatutako Arratiako III. Enplegu Azokea abenduaren 12an egingo da Igorreko Kultur Etxean, goizez. Arratiako enpresa eta entidade ugarik euren *stand*-a izango dabe bertan, hautagaiek kurrikuluma eta norbere burua enpresetako ordezkariari aurkeztu deien. Aurten, lanpostuen iragarpen taula bat be ipiniko da. **6. orrialdea**

EKIN

LAN PUBLIKOAK
UR ETA SANEAMENTS SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK

94 631 72 57
ekin@ekinsleus

Igorre (Bizkaia)

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Manifestazino jentetsua Igorren zemendiaren 25aren harira

Igorren, ehunka lagun batu ziran zemendiaren 25ean indarkeria matxistea salatzeke. Arratiako gazte feministak Lasarten bildu ziran Gazte Blokea antolatzeke, eta 19:30ean abiatu zan manifestazino zaratatsua Kultur Etxetik. Amaieran, 131 andra omendu ziran ekitaldi hunkigarrian. **8. orrialdea**

EKINEAN PSIKOLOGIA ZENTROA

NERABEZAROKO ERRONKAK GAINDITZEKO LAGUNTZEA

LAGUNTZEA NOZ ESKATU:

- EMOZINOAK KUDEATZEKO
- ZAILTASUNAK: ansiedadea, autoestimua...
- PRESINO AKADEMIKOA
- LAGUNAKAZ ARAZOAK
- FAMILIA ARAZOAK
- JARRERA EDO JOKABIDE ARRISKUTSUAK

Nerabe eta familiagaz eskuz esku beharrean

Lehendakari Agirre 4, Igorre - 652 702 650
maitealdekoa@gmail.com ekineanpsikologiazentrua

UBIDE

La Unioneko autobusa ez da Ubiden geratuko

A/3712 autobus lineak martxan segiduten dauan arren, ez da gehiago Ubiden geratuko, La Unionen esanetan, "benetako eskarira egokituteko". Horren orde, Arabako Foru Aldundiak Otxandio-Ubide-Legutio autobus zerbitzua bultzatu dau. Eguneroko zebitzua izango da, baina eskaripekoa. **5. orrialdea**



Literatura txokoa

CREER EN LAS FIERAS

Bigarren ez irakurri barri dot liburu zoragarri hau. Lehenengoan Pirinioetan bizi nintzala, oingoan Antilletan. Baina bietan egon naz nagoen lekutik kanpo. Bietan egon naz Alaskan apur bat eta Siberiako Kamchatkan asko, Nastassjaren eskutik, basoan, yurta barruan, leitutako erreka bazterrean, sumendi gainean, te beroa eskuetan, tximinia aurean, elur oreinen odol beroa barruak berotzeko. Eta bertako jentea. Eta bertako animaliak. Eta hartza.

Hartza eta Nastassjaren arteko burrukea. Benetakoa. Gizaki batek gorpuztu ahal dauzan personalidade desbardinak ikertzen emon dauz atzen urteak ikerlari honek. Baina hartzagaz izandako aurrez aurrekoaren ostean, oin

bere burua da bere ikerketa objektua. Erdi hartz erdi andra? Zer da? Nor da? Zergaitik pasau zan pasau zana modu haretan? Zer dala-ta itxi eban hartzak bizirik Nastassja? Galdera asko, erantzunak airean.

Nastassja Martin, Artikoko gizarte natiboetan espezialistea dan frantses antropologo gazteak, benetako istorioa kontetan deusku obra honetan. Errealidadea narrazio poetiko baten azpian. Familia natiboakaz igarotako hilebeteak, hartzategaz izandako burrukea, Frantzia eta Errusiako ospitalen arteko burrukea, Pariseko eta Alpeetako ospitalen arteko burrukea.

Eta Nastassjaren ulertzeko egarria. Gauero ametsak eta

ametsoi Siberiako txamanek emondako esangurea.

Liburua hasi eta amaitu arte eskutik soltau ezinda ixten dau Martinek irakurlea. Orrien alde honetan gauzenok be ulertzeko egarria, beharizana. Zer gara gu? Nor gara gu? Non dagoz limiteak gizakia, animalia, natura eta objektuen artean? Animismoaren barrena egingo dau bidaia erreflexiboa liburu honen orri artean murgiltzen danak.

Gure zilborretik haragoko begiratureko aukerea, beste erreallidade batzuk ezetuteko oparia, begiak zabaltzeko buelta pare bat emoteko konbitea, baina bueltak oingoan, orratzaren beste zentzuan, ia desbardin ikusteko aukerea emoten dauan.



Nastassja Martin

Creer en las fieras

Errata Naturae Editores, 2021

144 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Abenduaren 1etik 7ra
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937
22:00etatik 09:00etara (29-5)
Melero. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 8tik 14ra

Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano. (6-12)

Abenduaren 15etik 21era

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano. (13-19)
Zeberioak ez dau guardianik egiten.
Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara
Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu, Artea, Areatza, Dima, Igorre eta Zeanuri: 94 600 74 63
Bedia eta Lemoa: 94 600 68 85
Ubide: 945 45 50 17
Zeberio: 94 500 67 95

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17
mankomunitatea@arratia.eus

Gorbeialde Landa

Garapenerako Elkartea
94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Gertu bulegoa Igorre 94 406 80 00
Areatzako Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51
kulturetxea@igorre.net

Lemoako Kotxepin Kultur Etxea
kotxepin@lemoa.eus

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus
Areatzako Notariotza 94 673 92 26

Errota Fundazioa 688 854 543
info@errota.eus

Arratiako Musika Eskola
94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Atzen zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino. Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro. Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduro. Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandio: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordukin behin.

Ubide. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordukin behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordukin behin.

*08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzunik. **Zeanuritik.** Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzunik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

07:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik. **Basauritik Zeberiora.** Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik. **Ugaotik Zeberiora.** Lanegun eta zapatuetan:

07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11
A3712 linea. Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: 06:45ean eta 08:45ean urteten dau Bilbotik. Zapatuetan: 08:45ean urteten dau. Jaiegunetan: 10:30ean urteten dau.

A3712 linea. Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: 15:15ean eta 16:15ean urteten dau Gasteizetik. Zapatuetan: 16:30ean urteten dau. Jaiegunetan: 16:30ean urteten dau.

Eskualdeko garraioa. Erreserbak 945 18 20 60

6A linea. Otxandio-Legutio

Lanegunetan: Ubiden 06:35ean, 07:15ean, 09:20an, 11:20an, 14:45ean, 15:25ean, 17:15ean eta 20:25ean. Astegoi eta jaiegunetan: 08:45ean, 11:55ean, 16:40an eta 18:40an.

6A linea. Legutio-Otxandio

Lanegunetan: Ubiden 09:05ean, 11:05ean, 14:30ean, 15:10ean, 17:00etan, 20:10ean eta 21:15ean. Astegoi eta jaiegunetan: 10:35ean, 13:40an, 18:25ean eta 21:30ean.

Lotura Gasteiz-Durango 18 lineagaz.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta kudeatzailea:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Amaur Irazabal. **Webgunearen arduraduna:** Amaur Irazabal. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Maketazinoa:** Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresea (Dima), Mikel Madrazo (Igorre), Urko Iurrebaso (Arantzazu, Areatza eta Artea) Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz (Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Instagram:** @begitu.eus. **Mastodon:** @begitu, X: @BegituEus **YouTube:** @BegituAldizkaria

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearnak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuz.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Eskerrik asko danori!

Anekdota txiki bat kontauko deusuet.

Pasau dan urri lehenengoaren 12an, Xabi hil baino 5 egun lehenago, Durangoko kanposantuan egon ginan nire aita hil zala 6 urte bete ziralako. Ez naz ondo gogoratzten, kanposanturako bidean edo Areatzarako bidean izan zan. Kotxean gindoazala, etxeko laurok heriotzearen inguruan berbetan hasi ginan, normal-normal; gutariko baten bat hil ezkeror zer egitea gura genduan esanez. Lau-rok esan genduan erretea gura gendula baina errautsak botaterako orduan, bakotxak gure lekua aukeratu genduan, Peruk San Mamesen, zelan ez! Magalirena ez naz gogoratzten, nik Larranon, Durangaldean baina Arratiara begira, eta Xabik Areatzako punturik altuenean esan eban, Arranbaltzan. Zeinek esango euskun guri, handik eta 5 egunetara, Zeanurin agur esango eutsala bizitzeari eta nora begira? Hainbeste maite ebazan Gorbeira, Lekandara, eta zelan ez, Arranbaltzara.

Gaur bere nahia bete gura genduan baina eguraldiak ez deusku

itxi. Aurrerantzean egingo dogu!

Hau esanda, Gotzone, Juan Cruz, Magali, Peru eta boston partez, eskerrik beroenak emon gura deusaguz Lamino Mendi Taldeko kide guztiei, Xabiri maitasunez eta errespetuz beteriko omenaldi honegaitik. Baita, *Taupadak* kanta sortu dozuen artistei. Itzelak zarie!

Oso hunkigarria da Xabiren bizitza, lana eta ezetu zendue-nongan itxi eban errastua hain modu berezian aitortua izan dala ikustea. Hainbesteko maitasunez baloratzten eta oroitzen dozuela jakiteak harrotasunez beteten gaitu, eta dolu-bide hau eroaten lagunduko deuskula badakigu.

Zuen baimenagaz, eskerrak emoten jarraituko dot.

Lehenik eta behin, mila esker Areatzako eta Zaldibarreko fami-liari, momentu baten be bakarrik ez ixtearren. Eskerrik asko Blanki, Alex eta Elisa, ama, Markel eta Iskander...

Ultraheroiei zer esango deutset? badakit ez zabiziela ondo pasetan, baina hor zagozie, gu babesten, maitatzen, entzuten, besarkatzen, aurrera egiten laguntzen... modu batera edo bestera, bakotxak ahal dauan moduan. Kostauko jaku, baina

danon artean aurrera egitea lortuko dogu, ziur nago.

Mila esker beste ehundaka lagunei be: hainbeste zaintzean dozuezan Magaliren eta Peruren kuadrilla eta lagunei, Areatzako eskoleari, Areatzako familia alkar-tea eta Igorreko institutua osotzen dozuen guztiori, Areatzako palako taldeko eta Arratia 2014ko futbol taldeko ume, familia, entrenatzail-e eta arduradunei.

Eskerrak be Zaldibarreko "Ezpaingorri" kuadrilleari, Salouko kuadrilleari, Lurreri, Iohanari, Ain-hoari, tia Mari Carmeneri, Kont-xiri, Saioa bieie (neure "kintak"), Jon "Sopas"-eri, urtero Frantziako Tourra ikusteko asmoz joaten ga-ren lagun taldeari, Arratia Raideko kideei, Arratiako Ziklista Elkarteko arduradunei, Laudioalde Lanbide Eskolako Xabiren lankide eta ikas-leei, Arteako eskolako ikasle, lan-kide eta familiei, Otxandioko es-kolako ikasle, familia eta lankide izendakoei eta han egin dodazan lagunei, BEGITU aldizkariako kideei, Areatzako Udaleko ordezkariiei, eta orokorrean, Areatzako eta Zaldibargo herritarrei. Baten bat ahaztuko neban, ziur nago. Holan bada, eskerrik asko ahaztutako persona guzti horreei be.

Eta zelan ez! Eskerrik beroena zuri, Xabi, sortu dogun familia zoragarri hau emotearren eta jente guzti hau gure inguruan jartzearren. Ez zaitugu sekula be ahaztuko lastana! Mosu eta be-sarkada handi bat bidaltzen deu-tsugu zagozan leku horretara!

Eskerrik asko danori Gotzone, Juan Cruz, Magali, Peru eta nire partez.

NAGORE AGIRREBEITIA FONTETXA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eske-rronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitara-tuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu ber-bea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honeta-r a bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

ERETXIA



ROBERTO SALAZAR MUÑOZ

Hezkuntza Zientzietan Doktorea

Zuriari zuri eta baltzari baltz

Ondoizate estaduak herri-tarron bizitza kalidadea hobetuteko zerbitzu pu-blikoak sustatzen ditu (osasuna, hezkuntza, zerbitzu sozialak...). Ondoizate estaduaren egoerea neurtzeko dagozan adierazleen artean honako honeek topau daikeguz: gastu soziala, zerbitzu publikoen ahultasun-indarra, den-poran zehar sektore publikoek pribadu konzertauagaz izan daben eboluzinoa (adibidez, osasungin-tzan mutuak eta seguru pribaduak kontratau dabegan personek atzen urteetan izan daben igoerea, "ko-laborazino publiko-pribadua" deitu-takoari esker).

Ongizate estaduaren beste zutabeari begira, hezkuntza pu-blikoaren egoeraz hainbat kazo berba egiterakoan datu batzuk barriro gogoratu beharko doguz, errepikakorrek izan daitekezan arren. EAEko sare publikoaren porzentajea % 51ra heltzean da (erdia) eta funts publikoakaz finantzautako titulartasun pribaduko diran ikastetxe konzertau-pribaduak % 49ra (ikastolak eta kristau eskolak gehienbat). Esta-du zein Europa mailan hezkuntza pribadu-konzertauagaz alderatuz EAE-n porzentaje altuenetarikoa dogu. Ikus daitekeenez datu kezkarriak ez jakuz falta. Zein da joerea? Oingo egoereari eus-tea ala oindino gehiago murriztea eskaintza publikoa?

EAEko sareen arteko porzenta-jeari bakarrik begiratuta "eskan-dalagarria" dala deritxot. Gainera ez da atzen urteko egoerea, EAE-n ia 80. hamarkadatik holan daroagulako. Beraz egoerea kro-nifikau izan da eta horregaitik harritu egiten nau, indar politiko aurrerakoi batzuen kritika beste zerbitzu publikoetan (adibidez osasungintzan) eta hezkuntzaren datuei erreparauz "eskuak burura ez eroatea", beste aldera begira-tzea edota justifiketea.

Jaiotza tasa txikiagotzeak hainbat ikastetxe ixtera eroango ditu. Arazo horrek be aukerak zabalduko ditu, hareen artean hezkuntza publikoa indartzea (kuantitatibo eta kualitatiboki) eta esandako porzentaje es-kandalagarria orekatzeko, urtez urte eskaintza publikoa handitu leiteke, konzertauetako irakas-

leen eskubideak bermatuz. Hori lortzeako zailtasunak eta arazoak izango dira (egoitzen titulartasu-na...) baina prozesu eraldatzailea abiatzea ezinbestekoa da. Eral-daketa horretan erradikalak izan behar gara, "zuztarretan, muine-tan, gure analisiak oinarritu behar doguzala" esanguragaz. Erradika-lak izan behar gara, arazoa egitu-razkoa da-ta, ez da nahikoa ikas-leria zaurgarria modu orekatuan banatzea, premiazkoa izan arren.

Horren harira, atzenean hainbat alderdik babestu eben hezkuntza legearen kontzeptu bat nabarmendu gura neuke. Euskal Hezkuntza Zerbitzu Pu-blikoa dalakoa, hain zuzen be. Zerbitzu horrek ikastetxe publiko zein pribaduak barne hartzean ditu. Zelan da posible, zerbitzu publiko horren barne titulartasun pribaduko ikastetxeak izatea? "Zuriari zuri baltzari baltz". Pu-blikoa publikoa da, pribadua pri-badua, beste gauza bat da, egun hainbat gauzetarako ekimen pribadukoak alkarlana, beti be eszenatoki utopiko bat lortu arte: herritarren beharrazanei erantzuteko sare publikoetako zerbitzuak gehiengo izatea.

Hezkuntzan, osasungintzan... sistema dualak baimentzen dauzan pribatizazino mota des-bardinek (pribatizazino exogena, endogena, ezkututako pribatizazi-noa) efektu kaltegarriak dakarrez.

Hainbat aspektuk analisi kon-plejuagoa aztertzea eskatuko dabe, baina kako batzuk aintzat izateak datozaan erronken aurrean idea inklusiboagoak, jente-arte kohesionau eta bardintzaileagoak diseinatzen lagunduko dau.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkeror, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

ALKARREGAZ



Abizarie Euskara Alkartea

Dimako Abizarie Euskara Alkartea 2015-2016 urteetan sortu genduan prozesu parte-hartzaile baten bidez, hiru helburu nagusigaz: Euskerearen erabileran eragitea, konzientzia indartutea eta euskerazaleak batutea.

Kultureagaz eta komunitadeagaz alkar hartuta (balio hezitzaileak ardatz izanda) ekin geuntsan ibilbideari; euskerearentzako guneak irabazi eta hiztunak erakarteko, familien transmisioan euskerearen aldeko jarrerak indartuteko eta herriko erabilera zein paisaia linguistikoa eragiteko. Izan be, lurra, euskerea eta euskal kultura ondarea erdigunean kokatutea funtsezkoa ikusten dogu.

LUMATUTEN



SORAYA LIZUNDIA

Zemendia

Emozinoz betetako hilela da zemendia, Santi Brouard eta Josu Muguruzaren erailketen urteurrena, Francoren heriotzearena eta andrekin sufritutako biolentziaren kontrako aldarrikapen eguna hurrenez hurren.

Guzti horrerik futbol partidu esanguratsu bat gaineratu behar deusagu aurten, Palestinako futbol selekzioa Euskal Herrikoaren kontrako alegia. Ez zan futbol egun arrunt bat palestinarrek sufritutako genozidioaren salaketa jentetsua baino. Beste salaketa bat.

Francoren atzen bortizkeriaren oroitzapena presente daukagula, hau da zazpi militante antifaxisten fusilamentuarena, hiltzailearen heriotzearen urteurren egunean idazten nabiltzen, horregaitik biktimen izenak idatzi gura dodaz memoriarako: Jose Humberto Baena, Jose Luis Sanchez Bravo, Ramon Garcia Sanz, Juan Paredes Manot eta Angel Otaegi.

Franco hil zan baina dana ondo lotuta itxi eban eta ondorengo diskursoa gero eta espazio handiagoa hartzen dabil, zientzialarien azalpenei "fanatismo klimatikoa" deituz, andrakanako biolentzia sexistea ukatuz eta mesprezatuz "salaketa gehienak faltsuak dira" esanda edo "feminazi" deituta adibidez. Berbeak pisua dauka eta kolpeek baino min handiagoa egin ahal dau, Alpedreteko alkateak esandakoak adibide: "Gizon ona zan, aita ona, andrea asko maite eban, sistemeak ez eban gizona lagundu eta andrearen heriotzea sistemearen porrota izan zan". Alkate horren berbek min handia egiten deusez gizarteari erailketea modu horretan justifikauz. Gizon horrek sistemeak eragindako kaltea andreagaz konpartidutako berrogeta hamar labankada emon eutsazan. Maitatzeko modu bitxia.

Berbak ideologiaz kargauta dagoz, faxismoak kargatzen ditu kasu honetan eta transmitiduten daben mezuak matxismoa indartzen dau, gizona andrearen gorputzaren jaubea da eta erabili ahal dau bere nahia eta bere frustrazioa asetzeko, horrek andrearen erailketea badakar be.

Gazteriak sistemearen aurka doala sinistuta mezu hau bere egiten badau, etorkizun iluna.

ZERTZEAN



MARTIN ORTEGA MURO

Orue baserria, Igorreko Santa Lutzia auzoan



BEGI TXINDORRA

Hilaren 20an *Elurra teilatuan* kanta etorri jatan burura, mara-mara ibili izan zan mendi tontorretan eta herri txikietan. Paisaia zuri eta udagoieneko koloreakaz distira sortzen eban geure begietan. Poliki-poliki dator negua; tximinietan gris hautsa, kaleetan kantu kontari eta mendira igoteko asmoagaz lagunakaz disfrutetea.

Naturaren isiltasuna, iluntasuna, ilargi betearen argiak Gorbearen zirrara erakusten deusku.

Heldu da edur eta hotzaren garaia; gertukoakaz gerorako uneak sortzea, txokolote bero bategaz leihotik zurgatzen zurien erretratuagaz gozatzen ikustea eta garrantzitsuena hurreko lekuetaz maitemindu, argazkiak atera eta momentuaz gozatzeko aukerea izatea.

Mikel Ugarriza eta Luan Molina





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17	Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24	Goldor 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



agoa
hagin klinikak

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

**Ortodontzia
Implanteak
Estetika**

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bidaia
T. 94 631 50 39
ikolagatu Zerbaita: 900
R.P.S. 31/06

LEMOA

Cementos Lemonaren kutsadurearen gaineko berbaldia egingo da Kotxepinen

Lantegia EAEko bederatzigarren kutsakorrena da, Climate Traceren arabera, 2024an 215,11 kilotona CO₂ isurita.



Erredakzinoa

Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak antolatuta, hilaren 4an Ekologistak Martxan-eko Carlos Aribas Ugarte Lemoan egongo da, Cementos Lemona lantegiak eragiten dauan kutsadurearen gainean berbaz. Saioa Kotxepin Kultur Etxean izango da, 18:30ean. Zementuaren fabrikazioak eragiten dauzan CO₂, dioxina, amoniako eta bestelango gas kutsakorren datuak emoteaz gainera, Aribasek azalduko dau zelan isurketen baimenen ez beteteak, inguruko biztanleriaren osasuna arriskuan ipini daben.

Cementos Lemona EAEko

enpresa kutsakorrenetarikoa da. *Climatetrace.org* webgunea da mundu mailako isurketak neurtutun dituan webgune garrantzitsuena eta honen arabera, Cementos Lemonak 215,11 kilotona CO₂ isuri ebazan 2024an, beste kutsakor batzuez gainera eta EAE mailan, bederatzigarren lantegi kutsakorrena da Lemoakoa. Lehenengo postuan barriz, Repsolen petroleo-findegia dago, 2,56 milioi tona CO₂ isurita. Climate Trace proiektuaren ondorio kezkarrienetakoa izan da, orokorrean, mundu mailan gobernuak onartutun dabena baino hiru aldiz gehiago isuri dala atmosferara.

LEMOA

1.500 euroko Gabonetako otzarea zozketatuko dau Lemoa Ureztatzen alkarteak

Erredakzinoa

Lemoako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpresak batzean dituan Lemoa Ureztatzen alkarteak 1.500 euroko Gabonetako otzarea zozketatuko dau abenduaren 16an. Aurretik, hilaren 1etik 15era, Amorrortu jatetxean, Argazkilune argazki-dendan, Le-

zat Estetika zentroan, Merceria Josier merzerian, Kresala tabernan eta Tximeleta gozo-dendan egindako erosketa bakoitzeko, bezeroak zozketarako zenbaki bat lortuko dau. Abenduaren 16an egingo dan zozketan, urtetan dan zenbaki irabazleak lortuko dau bertoko produktuen 1.500 eurotako otzarea.

UBIDE

La Unionen autobusak ez dau geldialdirik egingo Ubiden

Arabako Foru Aldundiak eskaripeko Otxandio-Ubide-Legutio autobus zerbitzua ipini dau martxan.

Erredakzinoa

La Union autobus enpresek, Bilbo-Gasteiz eta aldrebeseko zerbitzuak egiten dauzanak, "benetako eskarira egokitureko" aldaketak egin ditu bere lineatan. "Egokitze" horreetako bat da Ubidetik pasetan dan A/3712 zerbitzua, abenduaren 1etik aurrera ez da Ubiden geratuko bidaariak itxi ez hartzeako. Horren ordez, Arabako Foru Aldundiak eskaripeko Otxandio-Ubide-Legutio autobus zerbitzua bultzatu dau, Legution Gasteiz-Durango arteko 18. lineagaz loturea daukana. Zerbitzu barriaz infortetako, Ubideko Udalak batzarra deitu eban zemendiaren 30ean.

Zerbitzu barrian, astebarruan lehenengo autobusa Oletatik 06:35ean eta atzena 20:25ean urtengo da Legutiorantza, tartean beste sei bidaia eginda. Bueltan barriz, Legutiotik 08:55ean ur-



tengo da lehenengoa eta atzena 21:05ean, tartean bost bidaia eginda. Astegoiene eta jaieguntan barriz, Oletatik lehenengoa 08:45ean eta atzena 18:40an urtengo da, tartean bidaia bi eginda. Bueltan, 10:35ean urtengo da lehena Legutiotik eta 21:20an

atzena, tartean bidaia bi eginda. Esan moduan, zerbitzua eskaripekoa izango da eta erreserba 945 18 20 60 telefonoan egin daiteke, egin gura dan bidaiaaren aurreko eguneko 20:00etara arte. Ordainketak eskudirutan, Bat, Mugi eta Barik txartelakaz egin daitezke.

ARRATIA, ZEBERIO

Turismoaren inguruko hamalau enpresek euren karbono-aztarna neurtu dabe



Erredakzinoa

Gorbeialde Landa Garapen Elkar-teak Europako Next Generation funtsen bitartez finantzau dau turismo-enpresentzako ekintza klimatikoa eta ekonomia zirkularra bultzatuteko ekimena. Gorbeia inguruko hamalau en-

presek hartu dabe parte proiektuan, "iraunkortasuna Gorbeia helmugearen balio diferentziala" egiteko helburuagaz. Holan, enpresa honeek euren jardunaren karbono-aztarna zein ekonomia zirkularren integrazino maila, iraunkortasun aldera beste pausu bat emonaz.

Bide horretan, Gorbeialderen laguntza tekniko eta ekonomikoa izan dabe enpresek eta horreetako hamabik, euren klimaren aldeko ekintza-plan propioa sortu dabe. Glasgowko Turismo Ekintza Klimatikoko Adierazpeneko bost ardatzetan oinarrituta -neurtzea, deskarbonizetea, birsortzea, lankidetzea eta finantzetea- egin dabe plana eta atzenean, Adierazpenera batu dira. Enpresa horreetatik zortzi dira BEGITUREN eremuak: Areatzako Bainuetxea, Estudios Ermitabari (Zeberio), Launtzin landetxea (Areatza), Hotel & Spa Etxegana (Zeanuri), Antzasti Museoa (Dima), Ailarak zentroa (Artea), Garena Jatetxea (Dima) eta Soloandie landetxea (Zeanuri). Gorbeialdeko teknikariek baieztatu dabenez, "enpresa honeetako bakoitzak frogatu dau iraunkortasuna ez dala moda bat, etorkizuna kudeatuteko modu bat baino; proiektu honek betetako eraldaketa prozesu batean lagunduteko aukerea emon deusku, non neurketea, ekintzea eta komunikazinoa bananduezineko pausuak diran".

DIMA

XV. eta XIX. mende arteko Dimako burdinola eta podere-familien gaineko liburua argitaratu dau Abel Ariznabarretak

Abel Ariznabarreta Zubero (1952, Dima) historialari eta etnografoak Dimako antxinako bizitzearen gaineko argitalpen barri bat argitaratu dau Antzasti museoaren laguntzeagaz: *Burдиноletako gabi-hotsa Diman (1440-1875)*.

Erredakzinoa

Lan honek Diman dokumentautu dagozan bost burdinolen historia azaleratuten dau, bai eta burdinolen jaubeak ziran podere-familien historia be; landa-oligarkia izatetik burdinolen gainbeherearen ostean politikara salto egin ebenera arte. Ariznabarretak BEGITUN aurrerratu dau, Diman aurkezpena 2026 hasieran egingo dan arren, liburua Antzastin zein Durangoko Azokako Bizkaiko Museoak *stand*-ean egongo dala salgai.

Ariznabarretaren ikerketen arabera, XVIII. mendean bost burdinola egozan funtzionamentuan Diman: Indusikoa, Atremingoa, Ibarrakoa, Artzubikoa eta Ziarrustakoa. Honeen artean 4.500-5.000 kintal burdin ekoizten ziran -315 eta 350 tona artean- eta Ariznabarretaren ikerketen arabera, posible da seigarren burdinola bat be egon izana, "Mugaras". Burdinola horreen funtzinoamentu, ekoizpen-prozesu, lan-baldintza, foru-arau eta kokapenen gaineko informazio ugarri batu dau historialariak baina foku berezia ipini dau, honeen jaube ziran familien-gan. Urretxa-Urizar, Asua-Urizar, Letona-Zirarruista, Goienola-Olabarri, Bernaola-Goienola, Azkarate eta Zamakolatarrak izan ziran orduko

Dimako podere-familiak, burdinolak desagertuten hasi ziranean, Bizkaiko Jaurerriko politikan XIX. mende hasieratik aurrera kargu esanguratsuak bete ebezanak. Holan, familien loturen bitartez sortu eben podere-sarea azaleratuten da, Arratiako Merindadeko elizate guztietara hedatu zana.

Antzastigaz alkarlanean

Abel Ariznabarretak urteak daroaz Artaungo Antzasti Euskaldunon Etxea museoagaz alkarlanean eta *Burдиноletako gabi-hotsa Diman (1440-1875)* liburua, alkarlan horren beste emaitza bat da. Antxinako landa-eremuko bizitza erakustera emoteko lan ugari argitaratu dabez daborduko. 2020an *Auzo bizitza Diman*, liburua argitaratu eben eta 2021-2023 artean, *Etnokaierak* bildumako bederatzi ale argitaratu ebezan: *Etxearen espazio soziala*, *Negu sasoia: lihoa eta artilea iruten*, *Denborari eta espazioari neurria hartzen*, *Garia eta artoa: aletik ogira*, *Ogi beltza baino beltzagoa ogi eza*, *Errotak uraren etxean eta lehenago*, *Emakumea: ezkontza eta estatus soziala*, *Euskal emakumearen eremu pribatu eta publikoa* eta *Bizimodu tradizionalaren modernizazio-zantzuak*.



Abel Ariznabarreta.

ARRATIA

Arratiako III. Enplegu Azokea antolatu dau Errotak Igorren

Hilaren 12an Kultur Etxean egingo da azokea, hau "herriratuteko" ahaleginean.

Erredakzinoa

Arratiako garapen sozioekonomikoa bultzatuteko Errota Fundazioak aurtan be antolatu dau Enplegu Azokea, hirugarrenez. Abenduaren 12an egingo da hau, 10:00etatik 14:30era, eta aurreko edizino biak Zulaibarren egin izan diran arren, aurtan Igorreko Kultur Etxean eroango da aurrera lana topetea erraztuteko ekimena. Izan be oin arte azokea, batez be Zulaibarreko ikasleen praktikaldiei bideratuta egon da baina Errota Fundazioak ikusi dau, hau herriratuteko beharrezana. Ekimen honen helburu nagusiak enpresei ikusgarritasuna emotea eta eskualdeko enplegu-aukerak sustatutea dira, gazteak eta langabetuak lan-mundura gerturatzuz, eta lana aldatu gura daben personentzako aukerea eskainiz.

Beraz, Arratiako enpresa eta entidade ugarik euren postuak



ipiniko ditue Kultur Etxeko *hall* eta erakusketa gelan, lana topetan dabilen jentea euren kurrikulumakaz hurbildu eta enpresako ordezkariakaz hurbileko tratua izan dagian. Bertan, enpresak eta euren jardunak ezetuteaz gainera, enpresak topetan dabilzan profilen gainean

informau ahal izango dira. Interesik izan ezkeru, kurrikuluma aurkeztu eta euren burua salduteko aukerea izango dabe lana topetan edo aldatuteko saiakeran dabizanek. Horrezaz gainera, lanpostuen iragarpen taula bat be ipiniko da, *stand*-ik ez daukien enpresentzako. Azokearen aurreko astean, egongo diran lan-eskaintzen gaineko informazioa Errotaren sare sozialetan argitaratuko da.

Enplegu aholkulariak

Talentua eta enpresak hartu emonean ipinteko Errota Fundazioaren ekimen honetan, lehenegoz hartuko dabe parte enplegu-zerbitzuetan espezializautako agentziek. Aldan lan orientazinoko eta enpleguko aholkularitzeaz gainera, gazteakaz lan egiten daben Novia Salcedo Fundazioa eta Gaztaroa Sartu aholkularitzak be egongo dira azokan.

ZEBERIO

1.800.000 eurotik gorako aurrekontua proposatu dau Udal Gobernuak



Erredakzinoa

Zemendiaren 20an Zeberioko Udalak herritarrak batzartutera deitu ebazan, 2026ko Udal Aurrekontuen proiektua azalduteko asmoagaz. Batetik, proposamenak egiteko galdetegian jasotako emaitzen bideragarritasuna baloratu zan eta bestetik, aurrekontu proiektuaren zehetasunak landu ziran, aurreikusi diran diru sarrera eta gastuak azalduz. EH Bilduren Udal Gobernuak 1.840.749,08 euroko aurrekontu proiektua aurkeztu dau eta oposizioaren ekarpenak jaso eta balorauko dira egunotan. Amaia Bernaola

zinegotziak BEGITUN aurrerratu dauanez, "asmoa da abenduko hirugarren astean aurrekontuak onartutea".

Ondasun arrunten, zerbitzuen erosketen eta mantenu lanetan espero da gastu handiena, 843.208,02 euro. Proposamenak egin eta herritarren kezken diagnostikoa egiteko galdetegian, kezka nagusia auzobideen egoera izan zan, erantzunen laurdenek aitauten eben hau eta besteak beste, bide bazterren mantenua egitea aurreikusten da 2026rako. Ohiko gastuez gainera, dendan leihoak aldatu eta Herriko Tabernan obra garrantzitsuak egin behar dira, 12.500 euro. Partida horregaz Udaleko artxiboen digitalizazioa be amaituko da (14.500 euro) eta gazte lokalaren funtzionamentu eskasa ikusita, eurentzako hilean behin ekintzak antolatuteko 7.500 euroko partidea gordeko da. Etxebizitza Diagnostikoa (9.500 euro) egitea eta bide eta baso pisten inbentarioa (18.000 euro) amaitutea be espero da.

Beste alde batetik, 239.232,23 euroko inbersinoak egitea aurreikusten dau Udal Gobernuak.

Auzotarren kezkei jarraituta, 83.500 euro bideratuko dira auzobideak asfaltetako, eta herriko baldosa eta biondak konponduteko ia 34.700 euroko partidea gorde da. Garrantzi handiko beste inbersino bat, 44.000 eurokoa, eskola zaharrean gimnasioa egitea izango da. Gainera, saneamentu sare orokorrera konektatu bako auzoetan 15.100 euro inbertiduko dira. Beste inbersinoetako batzuk frontoi ostean gazteentzako jolasgunea egitea (11.000 euro), Burdin Hesia atondu eta azalpen panelak ipintea (3.000 euro), gazte lokala atondu edo batzarretan urtetan dan proiektua egitea (7.500 euro), frontoian eguzki panelak ipintea eta Feroskanaren kudeaketea (13.000 euro), autobus paraden argiztapena (16.000 euro) dira, besteak beste.

Beste alde batetik, 497.699,24 euro gastauko dira personalaren gastuetan, 260.410,59 transferentzia arruntetan (Gorbeialde, UEMA, mankomunidadea, Ugaoko Udala, Korrika, auzoetako jaiak, kultur ekintzak, Arratiako Musika Eskolea, nazinoarteko alkarlaguntzea...) eta 300 euro finantza gastuetan.

ARRATIA

Arratiar ordezkaritzea daukan Etazetak taldea BBK Sariketako Zornotzako finalean egongo da

Erredakzinoa

Zemendiaren 17an, Mungiako Mugire Txokoa jokatu ziran Bertsolari Gazteen 33. BBK Sariketako lehen finalurrekoak. Gaztetxoan mailan, Ari garela taldea (Maddi Aurtentxe, Naroa Iturrioz eta Uxue Solabarria) eta Etazetak taldea (Ekhi Zuluaga Igorrekoa, Aiala Irurtia Arantzazukoa eta Emile Zabala Mungiakoa) aritu ziran lehian eta Etazetak taldeak irabazi eban saioa.

Nagusiagoen kategorian, Maiixo taldea eta Zerobi taldea izan ziran aurrez aurre eta atzen honek irabazi eban.

Zemendiaren 19an oster, Gernika-Lumoko Elai-Alai Aretan, jokatu zan bigarren finalurrekoa eta bertan ebatzi ziran finalerako atzen txartelak be.

Gaztetxoetan, Oizpeko pantolluk eta Txikitin parian taldeak izan ziran lehian. Malen Ibarzabal, Haizea Ro-taetxe eta Jon Abasolo dira lehenen-go taldeko kideak eta Iradi Barrene-tea arteaztarra, Amaia Gallastegi eta Aner Goikoetxea bigarrenekoak. Oizpeko pantolluk taldeak lortu eban garaipena eta finalerako pasea.

Nagusiagoen mailan hiru talde lehiatu ziran euren artean: Bizkaiko koplak gaztiak (Bittor Altube eta Janire Arrizabalaga), Mabe (Araitx Katarain eta Kelmene Abaitua) eta Piromanak (Enara Gallastegi di-moztarra eta Izaro Bilbao). Bizkaiko koplak gaztiak taldea izan zan nagusi.

Finala, hilaren 4an izango da arras-tiko 18:00etan Zornotzako Zelaieta Zentroan eta gaztetxoetan, Etazetak eta Oizpeko pantolluk lehiatuko dira, eta nagusietan, Bizkaiko koplak gaztiak eta Zerobi taldeak.



ARRATIA

Euskerea lehenetsiko da Areatza, Dima eta Igorreko Kutxabank eta Laboral Kutxako bulegoetan

UEMAK eta finantza erakundeek, udalerri euskaldunetako bulegoetan euskerea indartuteko hitzarmena sinatu dabe 59 udalerritan, tartean Areatza, Dima eta Igorren.

Erredakzinoa

Zemendiaren 20an, Udalerrri Eus-kaldunen Mankomunitateak hi-tzarmena sinatu eban Kutxabank, Laboral Kutxa eta Bankoa ABANCA-gaz. Honen bitartez, udalerri eus-kaldunetako finantza erakundeen bulegoetan euskerea lehenetsiko da eta 59 udalerri batu ziran eki-menara, Areatza, Dima eta Igorre tartean. Beraz, Areatzako eta Di-mako Kutxabank-en bulegoetan eta Igorreko Laboral Kutxa zein Kutxabank-en bulegoetan, euske-rea lehenetsiko da, besteak beste, langile-bezero harremanetan, ku-txazainetan, banka elektronikoan zein mezuetan eta publizidadean.

Hitzamenaren mamia lau pun-tutan bildu dabe udalerriek eta finantza erakundeek eta horre-zaz gainera, hitzarmenaren barri-emon, jarraipena egin eta hau lau urtez, luzatuteko aukereagaz, mantenduteko konpromisoa hartu dabe. Lehenengo puntua-ren arabera, udalen eta finantza erakundeen arteko harreman guztiak euskeraz izango dira. Bi-



garren puntuan, hizkuntza erispi-deak finkatu dira: langileen lehen berbea euskeraz izatea, mezu elektronikoak elebidunak izan eta euskerea lehenestea, produktuen gaineko informazioan euskerea lehenestea, txartelak eta eragike-ten erregistroak euskeratutea, kartelen % 75a euskeraz izatea eta bezero gazteei komunikazi-noak euskera hutsean bidaltzea, besteak beste. Euskerea lehene-tsiko da, baina bezeroek gaztele-rea mantendutea adierazo ahal

izango dabe.

Horrezaz gainera udalerri eus-kaldunetako bulegoetako langi-leak edozein lan mota euskeraz egiteko gai izateko konpromisoa be hartu dabe bankuek, euskerea-ren ezagutzea bermatuteaz gai-nera, langile barrien harrerea zein lan hizkuntzea euskerea izango dala adierazoz. Amaituteko, banka elektronikoan, *online* zein aplika-zinoan, eragiketa guztiak euskeraz egin ahal izango dirala bermatuko da hitzarmenaren bitartez.

ZEBERIO

Jardueraz betetako hilea daukie aurretik Zeberion

Zeberio Udalak eta herriko alkarteek hamazortzi ekintza antolatu dabez abenduko iluntasun eta hotzari aurre egiteko.

Erredakzinoa

Abendu Kulturala izenpean, Zebe-rioko kultur, gizarte eta kirol alkar-teek eta Udalak hilebate osorako egitarau potoloa antolatu dabe. Adin eta gustu guztietarako ekin-tzak dagoz antolatuta abenduaren 3an hasi eta urtailaren 2ra arte. So-lasaldiak, bertsoak, umorea, doku-mental proiektinoak, kontzertuak, urtekerea kostaldera, ballet ikus-kizuna, pelota partiduak, umeen-tzako tailer eta jolasak, auzoetako jaiak, mendi urtekerea eta zelan ez, Olentzerori eta Mari Domingiri on-doetorria egiteko jaiak egingo dira

abenduan zehar.

Lehenengo ekintza Euskerea-ren Egunean, abenduak 3, egin-go da; Xabier Madariaga kazetari zeberioztarrak gidatutako solasal-dia, Joseba Sarrionandia idazlea-gaz. Euskereagaz jarraituta, hila-ren 5ean *Bertsoklown* emonaldia egingo dabe Onintza Enbeita eta Aissa Intxausti bertsolariak, Beatriz Egizabal umoregileagaz batera. Hurrengo astean, egue-netik domekara egunero egongo da zer egin Zeberion. Eguenean *GR11 Ibilbidea* dokumentalaren proiektinoak eta honen gaineko solasalditxoak egingo da. Barikuan

barriz, Itziar Ituñoren Ingot tal-deak kontzertua eskainiko dau plazan eta zapatuan, Naiara Trifol ETB1eko *Ztanda* saioko lehiaki-deak eskainiko dau kontzertua, ermita zaharrea. Astea amai-tuteko, zeberioztarrek urtekerea egingo dabe Bizkaiko kostaldera, Ondarru eta Lekeitio bisitauz.

Bigarren hamabostaldia begira, abenduaren 15ean Arratiako Mu-sika Eskolearen emonaldia eta hila-ren 19an ballet ikuskizuna zein pe-lota partiduak egongo dira. Edizino honek zarratukeran, Bengoetxea, Larunbe eta Mikel Goñiren parte-hartzea baieztatu da. Bariku gauak luzatuko danaren itxurea dauka, partiduen ostean DJ Matxada bikote zeberioztarrak musikea ipi-niko dau-ta. Hileko atzen astean barriz, umeak izango dira protago-nista. Buruhandi tailerra, egurrezko jolasak eta puzgarriak izango dabez txikerrenek astean zehar, Olentze-rori eta Mari Domingiri ondoetorria egiteaz gainera. Horrezaz gainera, Etxazoko sanestebanek eta Bar-batxaoko santomasak ospatuko

dira, *Red Bull X-Alps 2025: Alpeak alderik alde oinez eta hegan* do-kumentala proiektauko da eta Gabonzahar egunean, urtekerea egingo da Tontorrandira.

Abenduak 3, eguaztena

19:00etan, Joseba Sarrionandia eta Xabier Madariagagaz solasaldia. Plazako Ermita Zaharrea.

Abenduak 5, barikua

18:30ean, *Bertsoklown*: Onintza Enbeita, Aissa Intxausti eta Beatriz Egizabal. Plazako Ermita Zaharrea.

Abenduak 11, eguena

19:30ean, *GR11 Ibilbidea* do-kumentalaren proiektinoak eta

solasaldia Elixabete Arbe, Joana Maluenda eta Bego Gonzalezegaz. Plazako Ermita Zaharrea.

Abenduak 12, barikua

19:00etan, Ingot taldearen kon-tzertua. Plazan.

Abenduak 13, zapatua

19:00etan, Naiara Trifolen kontzer-tua. Plazako Ermita Zaharrea.

Abenduak 14, domekea

Urtekerea Ondarru eta Lekeitiora.

Abenduak 15, astelehena

19:00etan, Arratiako Musika Esko-learen emonaldia. Plazako Ermita Zaharrea.



Joseba Sarrionandia.

ARRATIA

BideOn berraktibetako plana onartu dabe Arratiako udalek

Zemendira arte batzartuten egon ostean, EAJk eta EH Bilduk kostuak ia % 50ean murriztuteko plana onartu dabe, baina planaren egiletzak tirabirak sortu ditu alderdi bien artean.



Erredakzinoa

BideOn Arratia eskaripeko garraio sistema joandako udaraino egon zan martxan eta Bizkaiko Foru Aldundiak 900.000 euroko inbersinoa egin ostean baliogarria izan zan 65 urtetik gorakoentzako zein unibersidadera joateko ikasleentzako. Halanda be, proba pilotua amaituta Aldundiak udalen esku itxi dau finanziaizinoa. Udan zehar eta zemendira arte, EAJ eta EH Bildu batzartuten egon ostean kostuak % 50ean murriztuteko plan bat aurkeztu da eta udalen onarpenagaz, espero da BideOn 2026an hasieran martxan ipintea, Arratiako EAJk zabaldutako oharren arabera, "zerbitzua esleituteko beharrezkoa dan kontratazino publikoa amaitzerakoan". Mankomunidadeko udal guztiek onartu dabe plana, Ubidek kenduta; beraz, BideOn ez da haraino helduko.

Aitor Sorriketa Bediako alkate eta Arratiako Udalen Mankomunitateko presidenteak BEGITU azaldu dauanez, adinekoei eta menpekoei zerbitzu soziosanitarioetarako eta auzoetan bizi diranentzako oinarritzko zerbitzueta hurbildutera mugatuko da BideOn. "Printzipioz baztertuta" geratuko da gazteak unibersidadeetara hurbildutea, "eskari txikia" egon dalako. Beste alde batetik,

kostua murriztu aldera be, malgutasuna galduko dau zerbitzuak eta gidarien ordainketetan be aldaketak egongo dira. Lehen guardian egoteagaitik kobretan eben gidariak eta oin orduak bajatu eta zerbitzuengaitik kobrauko dabe. Bulegoaren funtzionamentuan eta eskaerak egiteko plataforman be egingo dira aldaketak.

Gatazkea planaren egiletzan
BideOn berraktibetako plan honen barri Arratiako EAJk emon eban, prensa-oharra komunikabideei bialduta. "Arratiako EAJ-PNVren udalerriek BideOn zerbitzua 2026an berraktibetako bideragarritasun-plan iraunkor bat aurkeztu dabe" titulupean, planaren egilezta euren gain hartuta. Halanda be, EH Bildu ez dago ados eta BEGITU EAJ gezurtatu dabe. Asier Aburto (EH Bildu) Arantzazuko alkatearen esanetan, EAJk gaurko planaren aurrekontu bikotxeko plana aurkeztu eban uda hasieran eta EH Bilduk ezezkoa emon eban, udalek ezin dabelakoan holango proiektua ekonomikoki mantenu. Holan, alderdien arteko batzarrak mantenu dabez zemendira arte eta Aburtok defendidu dau, EH Bildurenak dirala proposamen gehienak: "Eurak proposatu daben bakarra zerbitzua 70 urtetik gorakoei emotea izan da".

ARRATIA

Ehundaka lagun batu ziran Igorren indarkeria matxistearen kontra

Erredakzinoa

Zemendiaren 25eko Igorreko manifestazinoan, ehundaka lagun bildu ziran indarkeria matxistearen kontra egin eta hau salatzeko. Iluntzeko 19:15ean batu ziran Arratiako gazte feministak Lasarte Aretoan, Gazte Blokea antolatu eta honeri hasikerea emoteko. Ostean, 19:30ean hasi zan eskualde mailako manifestazinoa Kultur Etxetik. Mobilizazino zaratzsua izan zan, nahiz eta aurreko urtekoak bezain jentetsua ez izan. Kultur Etxetik hasi eta eleizatik bueltea emonda, barriro be hasikerako lekura heldu ziran, manifestazinoari ekitaldiagaz amaieraa emoteko. Ekitaldian, 2003tik gaur



egunerarte Euskal Herrian gizonak hildako 131 andrak omendu ziran, momentu hunkigarri eta gogor bat sortuz. Amaituteko, Aurre egin-

go dizueten emakumeak kanta alkarregaz kantau eta atzen berba batzuk esan ostean emon jakon amaieraa mobilizazinoari.

abenduak 3

Euskararen Igorre eguna

Euskararen aldeko Gaia

18:00-19:30 Lasarte Aretoan

Inbiu eguneko bideo luzea

trikitilariak

dantzariak

Euskaraldiko argazkiak

bertsolariak

eta gehiago...

Euskereak batzean gaitu

ICORRE

igorren euskereak

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Euskerearen Eguna ospatuteko ekitaldi ugari antolatu dira Arratian

Abenduaren 3a da Euskerearen Nazinoarteko Eguna eta herri gehienetan egingo dira omenaldiak, aurretik eta atzetik antolatutako jardueraz gainera.

Erredakzinoa

Euskerearen erabilerea gainbeheran dagoan honetan, Arratia, Ubide eta Zeberioko udalek, alkarte euskaltzaleakaz batera, euskereari bultzadatxo emoteko ekintzak antolatu dabez Euskerearen Nazinoarteko Egunaren bueltan. Abenduaren 3an bertan egunaren garrantzia azpimarratuteko jarduerak egingo dira herri gehienetan baina horrezaz gainera, badagoz aurretik egin diran eta ostean egingo diran aisi eta kultur ekintzak be.

Abenduaren 3an, eguaztena, egingo diran ekitaldien artean Arantzazukoa dago; 18:30ean euskerearen aldeko manifestua irakurri, kantalditxo eta gero, Argazki Lehiaketaren sari banaketea egingo da, txokolate beroagaz lagunduta. Areatzan barriz, 16:30ean hasiko dira ekimenak; mural margoketea, argazki herrikoia, bingoa, txitxi-burduntzia eta gaztaina erreka egongo dira. Bingoko sariak Korrikako erropak izango dira eta gainera, salgai be ipiniko da materiala. Artean barriz, 16:00etatik aurrera umeentzako tailer eta jolasak eta jantzaldia egingo dira, hemen be txokolate beroagaz lagunduta.

Diman barriz, 16:15ean umeentzako herri kirolak egongo dira eskoletan eta gero, 17:00etan, eskolan hasiko da "Eskolatik herrira euskerea eskuz esku, alkartez alkarte!" ekitaldia eta behin plazara helduta, txokolate beroa zerbitzatuko da bertaratutakoen artean. Igorren barriz, euskerearen aldeko gala berezia egingo da Lasarte Aretan, 18:00etatik aurrera. Bertan, Inbiu Eguneko giza kate-kiribilaren bideoa aurkeztuko da lehenengoz eta horrezaz gainera trikitilariak, jantziariak, bertsolariak, Euskaraldiko argazkien proiektzioa eta sorpresaren bat egongo da. Lemoan be egingo da ekitaldia; 18:00etan Txepeldunak antzezlan taularatuko da Kotxepinen eta gero, Kultur Etxeko atean Euskerearen Zugatza biztuko da. Bertan, herritarrek euskeraz gozatzeko gomendioak eskegiko dabez txarteltxoetan eta Guraso Elkartek txokolatea zerbitzatuko dau. "Euskeraz bizi gura dot" kamiseteta be egongo da salgai.

Zeanurin Euskerearen Zugatza osotuko dabe 17:00etan ume

eta gaztetxoek euskerazko berba eta esaldiakaz. Ostean argazkia eta txistorra egongo da ume eta gurasoentzat.

Gainontzeko jarduerak:

Artea

Abenduak 4, eguena

18:00etan, *Euskararen egoera Artean* berbaldia Kultur Etxean.

Abenduak 12, barikua

19:00etan, *Euskaldungak* antzezlan Kultur Etxean.

Bedia

Abenduak 2, martitzena

17:30etik 19:30era, *Zer eta zelan jantzi gure jaietan* tailer-berbaldia Ane Albisuren eskutik. Gure jai eta ospakizunetarako jantziek atzen 100 urteetan izandako bilakaerea erakutsiko da. Gaur egungo egoereari buruzko hausnarketa egingo da eta Iker-folken proposamenak azalduko dira. Amaitzeko, *Nola jantzi* izeneko erakustaldi bat egingo da eskoletan; 19:30ean, gaztai eta

ardao dastaketea, trikitilariak girotuta. Plazan edo eskoletan (eguraldiaren arabera).

Dima

Abenduak 5, barikua

18:00etan, *Txilarreko sukaldaria* dokumentala. Eskolako kamanan.

Zeanuri

Abenduak 3, eguaztena

19:00etan, *Ai gure juaneteak* Tarteant Teatroa konpainiaren antzezlan Kultur Etxean.

Abenduak 4, eguena

19:00etan, *Manntalingo alaba* emonaldi musikatua Kultur Etxean.

Zeberio

Abenduak 3, eguaztena

19:00etan, Joseba Sarrionandia eta Xabier Madariagaren solasaldia. Plazako Ermita Zaharrean.

Abenduak 5, barikua

18:30ean, *Bertsoklown*: Onintza Enbeita, Aissa Intxausti eta Beatriz Egizabal. Plazako Ermita Zaharrean.



Arantzazu euskaraz busti

Euskararen Eguna 2025

Arantzazuko Udala eta Jai Batzordea

Gabonilaren 3an eta urte osoan ekingo deutsagu EUSKERAZ

euskara da gure lurra

Dima

SARETZEN: ERRENTEA

Oparotasunaren itzala: Hego Euskal Herriko errenten erradiografia

Hego Euskal Herriko herritarren eta familien errentearen erradiografiak oparoa baina gorabeheratsua dan herriaren hezurdurea erakusten deusku.

Erredakzioa

Estadu osoan, gure lurraldea mapa ekonomikoaren goikaldean kokatuten da; izan be, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa dira Estaduko aberastasun handiena daben lurraldeen artean dagozanak, batez besteko errenta personalak (19.500 euro) nabarmen gairidituten dau Espainiako batez bestekoa.

Espainiako Estatistika Institutua-ren arabera (Familien Errentaren Banaketaren Atlas, 2024), EAE Estaduko sailkapenaren buru da, 20.279 euroko errenta personalagaz, Madril (18.856 euro), Balear Uharteak (18.854 euro) eta Kataluniaren (17.477 euro) aurretik. Nafarroak, bestalde, bosgarren postuari eusten deuto, baina batez bestekoaren gairetik, 16.941 eurogaz.

Halanda be, itxurazko oparotasun horren azpian, errenten banaketak lurraldeen, eskualdeen, herrien eta auzoen arteko kontraste handiak daukazala agerian ixten dau. Erreportaje honek, aberastasunaren itzalean ostonduten diran Hego Euskal Herriko errentearen arrakalak eta bilakaerea aztertuko dauz, datuen, adituen eta lekukoen bitartez.


be, batez bestekoa dan heinean, adituak nabarmendu dau errenta altuek "asko" igoten dabela aldagai hori.

Gipuzkoa da errenta personalaren buru Hego Euskal Herrian, 2023ko batezbestekoa 19.619 eurokoa izan zan (lurralde- eta udal-mailan eskuragarri dagoan atzen datua). Ondoren, Bizkaia (18.738 euro) eta Araba (17.806 euro) dagoz.

Arabari jagokonez, Bernatek nabarmendu dau "Araba bi" dagozala, Gasteiz dalako lanpostu industrialaren pisu handiena daukan uriburua, baina, Lautadaz kanpoko Arabako biztanle guztiak lehen sektorearen menpeko eskualdeetan bizi dirala, eta ondorioz, "atzean" geldituten dirala, errentearen ikuspegitik.

Eskualdeka, aldeak nabarmenagoak dira. Plentzia-Mungia dago sailkapeneko buruan, 20.697 eurogaz; beste muturrean, barriz, Nafarroako Erribera, 14.183 eurogaz.

Lau eskualdek bakarrik gairidituten dabe batez besteko 20.000 euroko errenta personala: Plentzia-Mungia, Debagoiena, Donostialdea eta Gorbeialdea. Horreei begira, ekonomian adituak nabarmendu dau eskualde horreetan kapital-errenta altuagoak dabeza-



Errenta personal handiena daukien udalerriak

Udalerriei jagokienez, Laukiz (25.434 euro) da gurean batez besteko errenta personal handiena daukan 1.000 biztanletik gorako udalerria, eta haren atzetik datoz Getxo (24.626 euro), Maruri-Jatabe (24.145 euro) eta Loiu (23.145 euro), guztiak Bizkaikoak.

1.000 biztanletik gorako errentarik handiena daukien 25 udalerrietatik 13 Bizkaikoak dira. Gairidituzkoak: 8 Gipuzkoan dagoz, 3, Araban, eta bat Nafarroan. Gehienak nahiko herri txikiak dira, 10.000 biztanle baino gutxiagokoak. Ha-ta guzti be, ez badeutsagu auzokidekopuruari erreparetan, datuak aldututen dira: Nafarroako 300 biztanle baino gutxiagoko bost udalerri dira

aberratsenak, 25.000 eurotik gorako datuakaz.

Ildo horretan, persona aberratsak jarri ditu jomugan EHUKo irakasleak. Laukizeri jagokonez, Unbemendi urbanizazioa aitatu dau, "hor bizi dira-ta euskal enpresari ugari". Hala, nabarmendu dau errenta ez dala udalerri horretan sortzean, ezta laukiztar gehieneri eragiten, "baina gitxi batzuen errentak oso altuak diranez, batez besteko errenta personala sailkapenaren buruan ipinten dau udalerria".

Azaldu dauanez, antzeko egoerea bizi da Getxon, Loiu, Barrikan eta Donostian, barbarako. "Persona aberratsen fenomeno erresidentzial horren ondorioz daukie errenta personal altua, eta ez, ordea, soldata eta

etekinak bertan sortzean diralako".

Estadu osoan batez besteko errenta personal handiena daukien 250 udalerrietatik, 112 Hego Euskal Herrikoak dira; hau da, Estaduko udalerri aberratsenen % 45 euskal udalerriak dira.

Are gehiago, Estadu osoko 25 udalerri aberratsenetatik, 8 gure ingurukoak dira: bost, Bizkaikoak; bi, Arabakoak, eta bat, Gipuzkoakoak.

Errenta personal txikiena daukien udalerriak

lfrentzia hegoaldean dago. 1.000 biztanletik gorako 25 udalerri xumeenetatik 24 Nafarroan dagoz, eta Castejon da errentarik txikiena daukana (11.850 euro). Nafarroakoez gainera, Arabako Errioxako Oion sartzean da zerrenda horretan, 14.035 euroko batez bestekoagaz.

Eskualdeei jagokienez, Nafarroako Erribera da nagusi talde horretan: bertako hamar udalerri apalenen artean dagoz, eta horreetako sei, hamar errenta bajuenen artean kokatzen dira. Biztanlekopuruari errepareau barik, udalerri apalena eskualde horretakoak dira, eta, gero, Arabako Errioxako eta Lizarraldeko beste udalerri batzuk dagoz, hala nola Navaridas, pobreena (11.111 euro), eta Andosilla (12.152 euro), besteak beste.



Nafarroako udalerriak dira errentearen hazkundean liderrak

2016 eta 2023 arteko bilakaeradatuak erakusten dabe abiapuntuako errenta txikiena daben udalerrietako hazkundea izan dala handiena, hain zuzen be. Gitxienez 1.000 biztanle daukiezan herrien artean, Deierri da gehien hazi dana (% 53,5), Nafarroan; ondoren, Cabanillas (% 48,6), Barrika (% 45,9), Ultzama (% 45,6), Maruri-Jatabe (% 44,9), Azkoien (% 43,1), Berastegi (% 41,9) eta Atxondo (% 41,8).

Atzen zortzi urteetan batez besteko errenta personala gehien handitu daben 25 udalerri handietatik 15 Nafarroan dagoz; sei, Bizkaian, eta lau, Gipuzkoan.


Lurralde osoari begiratu ezke-ro, kasu batzuetan aldi horretan batez besteko errenta personala ia bikoiztu egin da. Horixe da Biurrun-Olcoz, Deiu eta Izagaondoa Nafarroako udalerrien kasua: % 98,8rainoko hazkundea izan dabe.

Pertsonen batez besteko errenta (€) EAE, Nafarroan eta Espainiako Estatuan



Jon Bernat Zubiri EHUKo Lan Harreman fakultadeko Ekonomia Aplikatuko irakasleak azaldu dauanez, errenta personala norbanako batek urte osoan zehar jasotako errenta guztien batuketeta da, hau da, jasotako soldatea, etekinak eta interesak, besteak beste. Edozelan

la. Izan be, Debagoiena kenduta, enplegu- eta soldata-datuak ez dira onak hiru eskualde horreetan: "Kontua da klase altuko bizilagun gehiago dabezala, eta euren akumulazino gaitasunaren ondorioz errenta personal altuagoa dagoela batez beste".



Edozelan be, EHuko adituak azpi-marratu dau igoerea nominala dala, eta prezioak garestitzeak hazkunde horren parte handi bat baliobakotu-ten dauala, "eta hori bereziki larria da soldata txikien bilakaerea azter-tzen danean; horreei egiten deutse-ta kalte handiena lehen mailako ondasunak eta etxebizitzaren ho-rrenbesteko garestitzeak".

Familia-errentea, aberastasu-na neurtzeako beste modu bat
Familia-errentak, etxekoen unidade baten guztizko diru-sarreraren batu-ra gisa kalkulatuta, irudi osogarria emoten dau. Oro har, joerak erren-ta personalaren antzekoak dira: Gi-puzkoa eta Bizkaia lehen postuan dagoz, eta Nafarroak barriz, barne-sakabanaketa handiagoa dauka.

Errenta personala gizabanakoen konsumo-unidadeari esaten jako (Ekonomia Lankidetzeta eta Garape-nerako Antolakundearen eskalaren arabera); familiako errentak, barriz, etxekoen diru-sarrera agregauak



islatzen ditu. Ha-ta guzti be, Hego Euskal Herriko errentearen mapa ezer gitxi aldatzen da errenta perso-nala eta familiarra alderatzen

danean, nahiz eta ñabardurak dagozan. Eskualde aberatsenak bardinak izaten jarraituten dabe: Pientzia-Mungia, Debagoiena, Do-nostialdea, Gorbeialdea eta Urola-Kostaldea; aldea erdiko eta beheko tarteetan dago, errenta-motaren arabera eskualde batzuek posizi-noak irabazi edo galtzean dabez-ta. Mendialdea da kasurik deigarrie-netako bat: bertako errenta perso-nala erdikaldean manteniduten da, baina familiaren errentak behera egiten dau nabarmen. Iruñerriko eta Baztan-Bidasoako datuek os-tera, gora egin dabe bigarren kasu horretan.

Oro har, muturrak errepikatu egi-ten dira, baina barne-aldeek age-rian ixten dabe nola aldatuten dan argazki ekonomikoa errenta-mota biak begiratuta: aldea ez da baka-riik persona bakotzak irabazten dauanaren arabera, baizik eta etxebizitza beraren pean zenbat diru-sarrera batzean dan be.

Lurraldeen arteko desbardin-




errenta-dezil txikienetan: udalerrien heren bat baino gehiago 1go dezi-lean dagoz, familia-errenta txikie-nak daukiezan herrien % 10eko moltoan, taula osoko ehunekorik handiena. Bizkaian eta Gipuzkoan barriz, udalerrien % 4,4 eta % 1,1 dagoz molto horretan, hurrengo z hurrengo. Nafarroak be errenta bajuak dabezanen presentzia na-barmena dauka, baina banatua-go: % 10,7 lehen dezilean eta % 15,1 bigarrenean.

Tarteko deziletatik aurrera, pa-troia irauli egiten da: Gipuzkoa da errenta-maila altuetan udalerrien pisu erlatibo handiena daukan probintzia, batez be 8 eta 9 dezile-tan, non % 2 eta % 15 gaintitzen dauzan; ondoren Bizkaia dago, 10. dezilean konzentrazinorik handie-na daukana (% 17,7).

Nafarroak banaketa homoge-neoagoa dauka, eta Arabak, molto

zaugarrienetan presentzia handia daukan arren, baditu hainbat uda-lerri taularen maila altuenean: % 7,5 10. dezilean.

Non dagoz auzo aberatsenak?
Hego Euskal Herriko errentearen mapak landa-eremuaren eta urigu-nearen, iparraldearen eta hegoal-dearen, erdikaldearen eta perife-riaren arteko arrakalak erakusten ditu, baina baita auzo aberatsen eta pobreenen artekoa be. INEren errolda-sekzinoko datuen arabera, administrazio-unidade txikiena, errentearen gaineko arrakala uda-lerri handietan eta uriburuetan ger-tatzen da, batez be. Eta udalerrien barruko aldeak nabarmenagoak dira familia-errentea aztertzen da-nean. Uriburu guztietan eta eskual-deko udalerrien kasu askotan, auzo aberatsenen eta pobreenen arteko arrakala 40.000 eurotik gorakoa



saretzen

da, eta kasu batzuetan, Bilbon eta Gasteizen adibidez, 70.000 eurotik gorakoa.

Bilbo da auzo batetik bestera arteko arrakala handiena daukan udalerria: Abandoko eta Deustuko etxebizitzek Otxarkoagakoe-k eta San Frantziskokoe-k baino 81.000 euro gehiagoko familia-errentea daukie, batez beste. Getxon be kontrastea nabaria da: Hego Eus-kal Herriko auzo aberatsenak ber-tan dagoz, Neguri eta Areeta kasu, eta horreetan Itzubaltzeta/Romoko familia-errentak halako bi baino handiagoak dira.

Gasteizen, arrakala 78.000 eurorainokoa da; besteak beste, Abetxuku eta Zaramaga eremuak eremu dirudunen oso azpitik da-go; Mendizorrotza, esaterako.

Donostian be desoreka handia da: auzo aberatsenek, Mirakontxa eta Aiete kasu, Egia eta Intxaurren-doko familia-errentak hirukoiztu edo laukoiztu egiten dabez. Irunen, muga ekonomikoa iparraldearen eta hegoaldearen artean kokatzen da; eta Eibarren eta Arrasaten, lantegi-eremuen arteko banaketak nabaria izaten jarraitzen dau.

Nafarroan, arrakala herri handie-tan metatzen da. Iruñean, Iturruma eta Ermitagañaren eta iparraldeko San Jorge eta Txantrea auzoen ar-teko aldea 43.000 eurotik gorakoa da. Tuteran, udalerri barruko ekial-de-mendebalde arrakala agerikoa da, alde batetik bestera 29.000 euroko aldea dago-ta.

Familia-errentari buruzko dezi-len analisiak polarizazio-irudi hori indartzen dau. Etxe bakotxe-ko 54.841 euro baino gehiagoko errentak dabezan auzoak Hego Euskal Herriko familien % 10 abe-ratsenaren parte dira, eta % 10 pobreena, barriz, 20.000 euroko batezbestekoaren azpitik dago.

Banaketak erakusten dau saka-banatzeta handia dagoala goiko eta beheko tarteetan, eta desoreka are nabarmenagoa dala auzo tirooenei eta aberatsenei erreparauz gero.

Errentak gorabehera, Bernatek azpi-marratu dau gure inguruko eskualde gehienetan, gaur egun, bai soldata eta bai etekin altuak dabezan herritarrek bizi diran es-kualdean geratu ezin, eta kanpora joaten dirala lanera, "uriburuetakoa auzo aberatsenetan izan ezik".

Hori holan, familia-errentak eta personalak leku bateko garapenean eta ongizatean zuzeneko eraginik ez daben arren, ekonomia-adituak azaldu dau bizimoduari eragiten deutsal, zeharka bada be. "Berez, auzo edo udalerri baten errenta al-tuko jentea badago, zerbitzuak eta produktuak konsumiduko dabez, sarritan gertuko saltoki edo enpresei eskatuta, eta horrek garapen-efektu eta ongizatea sortzeako aukerea ekarriko dau, beti be lanpostu eta enpresa onak sortzeako moduan badagoz".



EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN ETA SARI POTOLO HONEEK IRABAZI!

Begitu-lagun egin ezkerro, edo Begitu-laguna izan eta barri bat ekarten badozu (biak sartzean dira zozketan) abenduaren 20ra arte arte bi sari honeen zozketan parte hartuko dozu:

SARIAK

A



Zeanuriko Zuhaitz Etxeetan gaua eta gosaria lagun birentzako.



Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 40€ ☐ 60€ ☐ 80€

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

B

* GARENA

Dimako **Garena** jatetxean **Gurea** menua lagun birentzako.



GABONETAN

EROSTEAN,

EZ SALDU
ZURE BURUA

LEHENENGO PLANIFIKATU ETA HORRELA EROSKETA
KONPULTSIBOAK BAZTERTUKO DITUZU.



KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SALIA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

Informazio eta aholkularitza gehiago // kontsumobide.eus



- **LAN PUBLIKOAK**
- **UR ETA SANEAMENTU SAREAK**
- **BASERRI ETA BASOKO BIDEAK**
- **PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK**



94 631 72 57



ekin@ekinsl.eus



Igorre (Bizkaia)



EGUZKIBEGI
IKASTOLA KOOP S

**ATE IREKIAK:
ABENDUAK 14**

**HH0-HH5
ordutegi malguak**

**Hezkuntzara egokitutako
espazio berritzaileak**

**Ongizate emozionala
erdigunean**

Jantokia eta sukaldea

**Aniztasunaren
trataera integrala**

**Erasmus +
Nazioartekotzea**

**Hizkuntzatan
akreditazio ofizialak**



944560264
idazkaria@eguzkibegi.net
www.eguzkibegi.eus





✓ EGOITZA

✓ EGUNEKO ZENTROA

IBARRA AUZOA, 17 DIMA
94 631 57 76

ARRATIAKO EGOITZA

ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO HERRI ERAKUNDE AUTONOMOIA

Gizarte- eta osasun-arreta jarraitua eta pertsonalizatua



Informazinoa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus



EUSKARAK 365 EGUN

Ubideko Udala



EUSKEREAREN NAZINOARTEKO EGUNA

Zeanuriko Udala



MARRAK
paperdenda

Lehendakari Agirre, 27 - Igorre
94 631 52 27
marrakpaperdenda@gmail.com

begitu
eus

EUSKARAK 365 EGUN



Abenduak 3, eguaztena
16:30ean, murala margoztu.
17:30ean, argazki herrikoia. Ostean, bingoa. Sariak: Korrikako kamiseta bat eta txapela eta Korrikako jertsea.
18:30ean, txitxi-burduntzia eta gaztaina erreak. Korrikako materiala egongo da salgai.

AREATZAN BE EUSKERAZ BIZI GURA DOGU!



Informazinoa: **649 979 115**
eta **inigoirua@begitu.eus**

Gure
ikastetxeak
Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 428 78 15 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Waur Wezwuntza
Lehen Wezwuntza
Dorrigorrezko Digarren Wezwuntza
Datxilergoan
Wezwuntza Zinloan
2 urtekin 13ra

ABENDUAK 3

Euskara:
bihotzetik burura, burutik eskuetara

ERRATA
ARRATIAKO GARAPENERANTZA

eusGara
lana eta euskara elkarlanean



MENDIA

Kolazino Mendi Egunak 10. urteurrena ospatuko dau 2026ko martiaren 14an

2026koa urte berezia izango da Kolazino Mendi Egunarentzat. Hamargarren urteurrena beteko dau, eta antolakuntzea eta Bediako herria buru-belarri dabiz lanean edizino ikusgarri eta berezia izan daiten.

Erredakzinoa

Kolazino Mendi Egunak bere 10. urteurrena ospatuko dau 2026ko martiaren 14an, eta urte berezia izanda, antolakuntzea ahalegin berezia egiten dabil prestaketa lanetan. Hamargarren edizino honen harira, Bediako herria inplikauta dago ekitaldia maila handikoa izan daiten.

Aurtengo edizinoak barriro be EMFko Kopako proba ekarriko dau, eta, horrezaz gain, Euskal Herriko Txapelketako lasterketa izango da. Horrek esan gura dau txapeldun absolutuen sariak Bedian bertan emongo dirala.

Antolatzaileen esanetan, helburua argia da: parte-hartze marka guztiak haustea. Horretarako, izen-emoteak abenduaren 8an zabalduko dira, *Sportmaniacs* plataforma bidez.

Ibilbideari jagokonez, aurreko



urteko noranzko berean egingo da, baina hainbat barritasun izango ditu. Ordutegietan aldaketak egingo dira, eta lehen aldiz, gazte eta kadete mailako korrikalariak Bediako plazan hasi eta amaituko dabe euren proba. Euren ibilbidea 13 kilometrokoa izango da eta 700 metroko desnibel positiboa izango dau.

Antolakuntzatik adierazo dabe urte hau "berezi-berezia" izatea gura dabela, eta horregaitik, ahalegin guztiak egiten dabizala Kolazino Mendi Eguna inozko edizionorik "hunkigarriena" izan daiten.

MOTORRAK

Urtekerea Zeanuritik hogeta hamaseigarrenez

Erredakzinoa

Pedro eta Iñigo Sagarna anaiek antolatuta, 120 motorzale batu ziran Zeanuriko Enduro urtekerara, bere 36. edizinoan. Arregia kaletik urten eben motorzaleek zemendiaren 23an.

Arabatik, Gasteiz eta Laudiotik; Gipuzkoatik, Irundik eta Aretxabaletatik eta Bizkaia osotik etorri da jentea aurtan: Arratia, Portugalete, Santurtzi, Bilbo, Otxandio... eta beste leku batzuetatik

etorritakoek be. Altungane igon, Basagurenen armosau eta handik Ubidera eta Ubidetik Saldropora eta Zeanurirako ibilbidea egin eben. "Apu bat berandu egin jakun ze beti egoten da arazoren bat hainbeste jente artean, baina gustura egon zan jentea egindako buelteagaz eta datorren urterako indar handiagaz dagoz barriro be motor buelte egiteko" adierazo deutso BEGURI Pedro Sargarnak. Aurtan gainera Beñat Sagarna lobearen laguntzea euki dabe.



ZIKLO-KROSA

Txiki Kopako lasterketarik arrakastatsuena Igorren

298 txirrindulari gaztek hartu eben parte Igorren zemendiaren 29an korridu zan Txiki Kopako jardunaldian.

Erredakzinoa

Aurtengoan txirrindulari nagusi eta nazinoartekorik egon ez dan arren, Igorreko Olabarri auzoko landak barriro izan ziran ziklo-kros jardunaldi arrakastatu baten lekuko zemendiaren 29an. Arrastian zehar jokatu ziran kategoria desbardineta lasterketak, bost urteko umeetatik hasita, infantilen kategoriaraino. Leire Aurrekoetxea Arratiako Ziklista Elkarteko presidentek BEGITUN adierazo dauanez, Txiki Kopa tor-

neoko lasterketarik arrakastatsuena izan zan Igorrekoa, 298 txirrindulari gazteren parte-hartzeagaz.



Aurrekoetxea pozik agertu da, "bolutario piloa eta giro oso ona" egon zalako zirkuituaren inguruan, gainera, aurtengoan eguraldi ezin hobeagaz. Igorreko lasterketako podiumetan zein torneoko sailkapeneko lehenengo postuetan arratiarik ez badago be, beste urte batez erakutsi da ziklo-krosak etorkizuna daukala Igorren, txirrindulari profesional barik be. Halanda be, AZEko presidentek adierazo ebanez, aurtan nagusirik egon ez dan arren, "idea hori, nazinoarteko ziklo-krosarena, inoz ezin da alboratu Igorre baten". Beraz, zabalik itxi ditu atea datorren urterako.

KONTZERTUETATIK ETXERA BUELTATZEKO AUTOBUSA LEMOA-DIMA-ZEANURI

DURANGOKO AZOKA - KONTZERTUAK

NOIZ:

2025ko ABENDUAREN 6an (zapatu gauean)

NON:

LEMOAKO EUSKOTREN ESTAZIÑOAN

ORDUTEGIA:

GOIZEKO 03:00etan / GOIZEKO 05:00etan



Arratiako
Udalen
Mankomunitatea
Gazteria Aroa
Área de Juventud

MENDI LASTERKETE▶

Iñigo Pradera eta Itsasne Urkiaga izan ziran Lemoatx lasterketako irabazle nagusiak

Zemendiaren 16an jokatu zan Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako Lemoatx Trail jardunaldia.



Itsasne Urkiaga.

Erredakzinoa

Urtetan lehenengoak 25 kilometroko mendi martxakoak izan ziran eta gero urten ziran nagusien lasterketa biak zein meena. 25 kilometroko lasterketearen irabazleak Iñigo Pradera eta Itsasne Urkiaga izan ziran. Lasterketa laburrean barriz, 17 kilometrokoan, Aner Zuluaga igorreztarra eta Itsasne Bengoetxea zeanuriztarra.

FUTBOLA▶

Andrazkoen Arratia A taldea lidertzan dago

Zemendiko atzen astegoienean gizonezkoen taldeek baino ez eben jokatu. Andrazkoen Arratia A eta Bk atsedena izan eben.

Erredakzinoa

Andrazkoen Arratia A taldeak zemendiaren 23an jokatu eban etxetik kanpo Bizkerre B taldearen kontra eta 0-1 irabazi eban. Bederatzi jardunaldiren ostean 19 puntu ditu lgorreko taldeak eta lidertzan dago. Datorren partidua Urbietan jokatuko dau bigarren postuan dagoan

(02:49:50) osotu eben podiuma. Gizonezkoen lasterketa laburrean Aner Zuluagak 01:26:08ko denporea egin eban, Eukeni Egileorrek 01:28:30ekoa eta Mikel Markinak 01:28:48koa. Andrazkoetan Itsasne Bengoetxea Zeanurikoak 01:54:30eko denporea egin eban eta atzetik heldu ziran Ana Agirre (02:00:36) eta Deiene Gurtubai (02:01:58) Arteakoa.

Etxeko irabazleak

Ganzabal Mendi Taldeak bere kirolariak be saritu ebazan. 25 km-ko lasterketearen irabazlea andrazkoetan Tamara Txikon izan zan eta 17 km-koan Deiene Gurtubai. Gizonezkoen sailkapenean, lasterketa luzea Ruslan Roderok irabazi eban eta laburra Kevin Luchak.

HERRI KIROLAK▶

Plazei agur esanda, Tubi omenduko dabe abenduaren 13an

Jantzariak, herri kirolariak, bertsolariak, musika talde famauak eta "sorpresa asko tartean" egongo dira Dimako frontoi handian.

Erredakzinoa

Jose Martin Bustinza "Tubi" (Dima, 1972) kirolari historikoa da, ez gurean bakarrik, bai eta Euskal Herri mailan be. 2002an hasi zan herri kiroletan eta ordutik Euskal Herriko lasto-botateko hamazortzi txapel eta lasto-jasoteko hamabi txapel bereganatu ditu, Bizkaia zein Gipuzkoako hainbat irabazteaz gainera. Plazetako erakustaldietan jarraitu dauan arren, urte hasieran jakinarazo eban ez zala gehiago lehiatuko eta bere ibilbide luze eta oparoari aitortzea egiteko, omenaldia prestatu deutsie. Abenduaren 13an, zapatua, izango da omenaldia Dimako frontoi handian,



17:30etik aurrera.

Tubi zein hurbilduten diranentzako "sorpresa asko" egongo dirala aurreratu dau BEGITU Ibon Iza bere lagunak. "Agur bat, besarkada bat, aitortza bat, guretik herriarentzat", izango dan omenaldiak ordu bi inguru iraungo dauz eta jantzak, bertsolariak, musika talde "famauen bat" eta jente ezaguna egongo dirala aurreratu dau. Horrezaz gainera, Tubiren inguruan egon diran herri kirolariek be hartuko dabe parte, andra zein gizonezko azkolariak, harri-jasotzaileak, lasto-altxatzaileak, lastobotatzaileak, ingudelariak eta txingalariak. "Gorde data, Tubi bezain handia izango da-ta!" inoan Izak omenaldirako deialdian.

PELOTEA▶

Binakako Serie B Txapelketea jokatuten dabil Xabi Rekalde Iñigo Bikuñagaz

Erredakzinoa

Xabi Rekalde pelotari dimoztarrak aurreko 4 1/2ko txapelketan egin eban debuta eta oin, ASPEk Binakako Serie B Txapelketarako be aukeratu dau. Iñigo Bikuña donostiarra da bere bikotea eta oin, ligaxka fasean dagoz murgilduta, zezeilera arte luzatuko dana. Lehenengo partidua zemendiaren 21ean jokatu eben Arrasaten eta 22-9 galdu eben, Ander Murua eta Arkaitz Gabirondoren kontra. Bigarren partidua zemendiaren 30ean jokatutakoa, 22-19 galdu eben Eibargo Astelenan Dario Gomez eta Carmelo Loza bikotearen aurka.

Lehenengo partidua amaituta, Rekaldek BEGITURI egindako adierazpenetan onartu eban ez dabela txapelketea oso ondo hasi: "Oin arte profesionalakaz 4 1/2ko partidua bakarrik jokatu doguz eta kostau egin jata binakako jokamoldera egokitutea; eurek partidu perfektua egin eben, oso ondo jokatuta, eta guk ez horrenbeste". Hurrengo partiduetarako, entrenamentuetan "Bikuñagaz batera bikotea egiten" dabilela adierazo eban: "Ia sensazio hobeak lortzean doguzan eta bikote moduan hobeto moldatuten garen".

dearen kontra, hilaren 6an, arrastiko 15:30ean.

Gizonezkoen Arratia A taldeak zemendiaren 29an jokatu eban Urbietan Otxarkoaga A taldearen kontra eta 2-0 irabazi eban. 11 jardunaldiren ostean 23 puntu ditu Arratia Ak eta hirugarren postuan dago, igoera postuetan. Datorren partidua etxetik kanpo jokatuko dau Gatika taldearen kontra hilaren 6an, goizeko 11:30ean.

Gizonezkoen Arratia B taldeak zemendiaren 30ean jokatu eban Urbietan lurretako A taldearen kontra eta 3-1 irabazi eban. 11 jaldunaldiren ostean 11 puntu ditu Arratia Bk eta hamalagarren postuan dago sailkapenean. Datorren partidua etxetik kanpo jokatuko dau Padura B taldearen kontra hilaren 6-7ko astegoienean. BEGITUk edizinoa zarratukeraz zehaztu barik egoan eguna eta ordua.



Lidertzan dagoan andrazkoen Arratia A taldea.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobik etxetik kanpo jokatu eban zemendiaren 29an Indartsu taldearen kontra eta 3-2 galdu eban. 11 jardunaldiren ostean 21 puntu ditu Lemoako Harrobik eta bosgarren

postuan dago. Datorren partidua Arlonagusian jokatuko dau Acero taldearen kontra hilaren 5ean, barikua, gaueko 20:00etan. Partidu honetan euskeraz jokatuteko eta animetako hiztegien banaketea egingo da.

IKASTAROAK

Hilaren 15era arte emon daiteke izena Igorreko ikastaroetan

Erredakzinoa

Igorreko Udalak hainbat ikastaro antolatu ditu 2026rako eta abenduaren 1etik hasita, abenduaren 15era arte dago honeetan izena emateko aukerea. Inskripzioak egiteko, lehenengo eta behin izen-emote orria bete behar da eta hau Igorreko Kultur Etxean zein *igorre.net* webgunean eskuratu daiteke. Gero, orria Kultur Etxean bertan aurkeztu, 09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era, edo *ikastaroak@igorre.net* posta elektronikora bialdu daiteke. Gogoratu Kultur Etxeko bazkide izanik, merkeagoak di-

rala ikastarook -% 10 eta 15 artean- eta abenduaren 16ra arte, merkeagoa dala bazkideetza.

Akrobaziak (6-9 urte), *Akrobaziak* (+16 urte), *Akrobaziak* (maila egokia), *Txi-kung*, *Hipopresiboak/Pilates*, *Literatura* tailerra (bazkideentzat doban) eta *Arte eta sormen seminarioa* ikastaroak Kultur Etxean eskainiko dira oso-osorik. Beste alde batetik, hiru yoga talde osotuko dira. Martitzen eta eguen goizetako taldeak Kultur Etxean egingo ditu klaseak eta arrastiko talde biak, astelehen eta eguazten zein martitzen eta eguene-takoa, eskolan egingo dira.

KONTZERTUA

Zeinke taldeak atzen kontzertua eskainiko dau Karabie Gaztetxean

Erredakzinoa

Hamarkada bateko ibilbidearen ostean, Zeinke hilaren 13an egingo dau atzen agurra Lemoako Gaztetxean.

2014. urte amaieran hasi ziran Jokin Uriarte, Mikel Muelas eta Pablo Ruiz Zeinke taldearen lehen kanta konposatuten Lemoan. Hortik urten zan 2015eko maketea eta Zeinkereren musikea plaza eta aretoetan entzuten hasi zan, Lemoan lehenengo eta inguruko oholtzetan gero. Hamar urte beranduago, Zeinkek *Unea heldu da* birea iragarri eban, atzenengo kontzertuakaz. Birako eta taldearen atzen kontzertua abenduaren 13an izango da Lemoako Karabie Gaztetxean, 23:00etan, sarrera libre izango da. Kontzertu aurretik Pablo Runtogetherren pintxadea

egingo da eta ostean, DJ Agata Lagataren musikea.

Hamar urte honeetan, make-teaz geroztik, Zeinkek beste disko bi argitaratu ditu. Lehenengoak 2016an ikusi eban argia, *Sormena*, *Kemena* izenpean, autokoiztuta. 2017an eta 2018an kontzertuz kontzertu ibili zan hirukotea baina gero, Ruizek taldea itxi eta geldialdixoa egin eben. Asier Fernandez baju-jole barriagaz hasi ziran 2019an disko barriari bueltak emoten eta hortik sortu zan 2021ean argitaratu zan *Antiheroia*k. Fernandez lekukoa Aitor Ipiña billaroztarrak hartu eban gero eta ordutik mantenu da taldea. Holan, hirukote honek -Ipiñak, Uriartek eta Muesasek- biribilduko dau Zeinkereren ibilbidea Karabien, taldearen etxea izan dan gaztetxean.



Mikel Muelas, Jokin Uriarte eta Aitor Ipiña.

KORRIKA

Martiaren 19tik 29ra egingo da 24. Korrika

Atharratzen hasi eta Bilbon amaituko da "euskerearen herria" zeharkatuko dauan AEKren ekimena, "Euskara gara" lelopean

Erredakzinoa

Zemendiaren 13an, Gasteizko Izaskun Arrue Kulturgunean aurkeztu eban AEK-k Korrikaren 24. edizinoa. Aurreratu ebenez, oindino ibilbide osoaren barri emon ez bada be, 2026ko martiaren 19an abiatuko da Korrika Atharratzetik (Zuberoa), 2.500 kilometro inguru egin eta Bilbon amaituteko. Bertan egingo da amaierako jaia, martiaren 29an. "Euskara gara" leloa hartuko dau datorren urteko Korrikak eta Ane Pedruzo eta Jon Basaguren aurkezleek gaur ekimen honek daukan garrantzia azalerarazo dabe: "Hizkuntza eskubideetan atzerapausurik ez dogulako onartuko".

AEKren nazino kontseiluko Maialen Begiristain eta Lurdes Etchezarreta izan ziran berbea hartzean hurrengoak eta euskerea "bardin da ze jatorri, zein azal-kolore, euskerearen inguruko zelangoz ezagutzea", guztiontzako aterpea dala adierazo eben: "Guztion artean eregita, atzenean aurkituko dogu gizarte-zapalkuntza orotatik basbestuko gaituan komunida-



de bardinzale eta zabala, gure herrian, euskerearen herrian, mundu oso bat sartzean baita". Halanda be, "larrialdi linguistikoko bete-betean" gagozala gogorazoz eben eta instituzinoei helarazoz deutsee, "hizkuntza-politika ausarta eta sendoareen beharra".

Amaituteko, Ane Elordi Korrikaren arduradunak, 2015etik Igorreko Kubulu Euskaltegian lan egiten dauanak irakurri eban Korrikaren mezua. Azaldu ebenez, "Euskara gara" leloak jente-artea dauka helburu: "Euskal Herriak arnasa barria behar dau, euskerearen herrira jauzi egin gura daben guztien herria gara, berton jaiok izan zein kanpotik etorri.

Euskerea da gure arnasa, alkarren zaintzaren hizkuntzea, justizia sozialaren hizkuntzea...".

Korrikako materiala Kubulun

AEK-k 24. Korrikarako material ugari ipini dau salgai, giroa bertuten joateko eta Korrikan bertan jentea ekimenaren erropa zein osogarriakaz jantzi daiten. *Online*, zein Igorreko AEKren Kubulu Euskaltegian erosi ahal izango da materiala. Euskaltegiak barikuro ipiniko dau materiala salgai, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Kamisetak, jertseak, biserak, giltzatak, petoa, lepokoa, kaltzetinak eta abar dagoz eskuragai.

KONTZERTUA

Jurgi Ekizak *Argitzala* diskoa aurkeztuko dau Kotxepin Kultur Etxean

Willis Drummond taldeko ahots eta gitarra-joleak hilaren 12an aurkeztuko dau bere bakarkako bigarren lana.

Erredakzinoa

Jurgi Ekiza (Baiona, 1980) musikariak *Argitzala* diskoa aurkeztu eban uda amaieran eta oin, areto, taberna eta plazetan dabil hau aurkeztuteko biran murgilduta. Abenduaren 12an, barikua, geldialdia egingo dau Kotxepin Kultur Etxean, 20:00etan. Ekizak berak hainbat alkarriketetan adierazoz dauanez, Willis Drummond zein bakarka, beti egin ditu kanta triste, lasai edo haserrera eroaten dabenak baina oingoan, itzalak baino argiak ditu diskoak, letra alaiagoak idazten saiatu dala. Holan, berak oso-osorik, musika zein teknika aldetik, ekoiztutako hamaika kantako diskoa da



Argitzala.

Ekizak 2004an sortu eban Willis Drummond eta bertako gitarra-jole, abeslari eta letragilea

izan da. 2014an etenaldia izan eban taldeak eta hor ebatzi eban bakarkako bideari ekitea. Orduan argitaratu eban bere lehenengo diskoa, *Ekiza*. Ahotsaz gainera gitarra akustikoa, gitarra elektrikoa, bajua, pianoa, organoa, melodika, sanplerrak, perkusinoa eta bateria grabau ebazan berak. Willis Drummond taldea barriro igon zan oholtzetara baina 2024ko urtailean eskaini eban atzen kontzertua. Ekizak barriro ekin eutsan bakarka diskoa grabeteari eta horren emaitza da *Argitzala*. Halanda be, bitartean argitaratu izan ditu bakarkako abestiak be eta besteak beste, *Ane* eta *Azken erromantikoak* pelikuletako soinu-bandak egin dauz.

DOKUMENTALA

Diman, Zeanurin eta Igorren proiektauko da Akelarre: marearen kontra

Erredakzioa

Akelarre musika taldearen ibilbide musikal oparoaren jatorria eta momenturik adierazgarrienak errepasetan dituan dokumentalaren Arratiako lehenengo proiektzinoa Areatzan egin zan zemendiaren 30ean. Juanma Labandibar arteaztar teklistea eta Zure ondoan, Karolina eta Malko bi moduko balada mitikoen ahotsa bertan egon zan. Baina

ez da emonaldi bakarra izango, hurrengo egunetan Diman, Zeanurin eta Igorren proiektauko da,

hurrengo hurrengo. Abenduaren 12an Dimako eskolako kamaran egongo da ikusgai Akelarre: marearen kontra, 18:00etan. Abenduaren 13an ostera, Zeanuriko Kultur Etxean proiektauko da 19:00etan eta abenduaren 14an Igorreko Lasarte Aretoan, 19:30ean. Egunik zehaztu ez bada be, Labandibarrrek BEGITU aurreratu dau urtaillean Lemoan be ikusi ahal izango dala dokumentala.



LIBURUA

Mikel Urkixok "belaunaldi baten porrotari buruzko" poema liburua argitaratu dau

Erredakzioa

Mikel Urkixo Aierdik (1981, Zeberio) bere bigarren poema liburua argitatu dau, 50 (berrogeita hamar) izenpean. 50 poema batu ditu bertan eta BEGITU azaldu dauanez, "belaunaldi baten porrotari buruz berba egiten dauan liburua da". Aurreko poema liburua, Hustu artekoak, bikote harremanen porroten gainekoa bazan, oingoan porrot politikoak, porrot personalak, bizitza-proiektuenak eta abar dakar: "Beste barik, nik jarraituten

dot galtzaileen istorioak kontetan". Burua galtzailetzat zein irabazletzat daukien horreek liburua zabalduterakoan zer topauko daben galdetuta, Urkixok argi dino topauko dabena "umore asko" dala: "Garrantzitsutzat daukaguzan gauza asko parodikoak bihurtu dodaz, lana eta arrakasta adibidez, hemen badago belaunaldi bat konturatu dana bere denporea pasetan dabilela, baina umorez hartzean dauana; galtzailearen begiradea, esperantzazkoa gainera. Nik uste dot poema askotan iden-

tifikauta topauko dabela askok euren burua, belaunaldi haretakoek".



DUNBA

"Gu euskara gara euskaraz"

Zeberioko eskolako 6. mailako ikasleak

Gu Zeberioko eskolako 6. mailako ikasleak gara. Laster Euskerearen Eguna ospatuko da. Euskerearen Nazinoarteko Eguna, euskerearen aldeko eguna, euskal kultura eta nortasunaren ospakizuna izatez gain, 1552ko abenduaren 3an Frantzisko Xabier hil eta bere atzen berbak euskeraz esan zituela oroitzen da. Euskerearen Nazinoarteko Eguna, aldarrikapen eta ospakizun eguna izango da, herri eta uri askotan ekitaldi ugarigaz, baita Zeberion be.

Egun hau ospatzeko, gure egunerokoan landutako hainbat poesia, kanta eta pasarte aukeratu doguz. Zeberion egun osoko egitaraua izango dogu. Goizean,



FILMA

Sorginak eta inkisidoreak Lasarte Aretoan

Hilaren 7ko zinema saioan Paul Urkijoren euskal mitologiaren gaineko hirugarren filma proiektauko da 19:30ean: Gaua.

Erredakzioa

Paul Urkijo zuzendari arabarrak bere hirugarren pelikulea aurkeztu eban Sitgeseko Jaialdian, Gaua. 2017an, Errementari filmean debruakaz jolastu eta 2022an Iratin Karlomagnoren kontra burrukan egin ostean, oingoan sorgin eta inkisidoreen istorio bategaz bueltau da Urkijo pantaila handira. Yune Nogueiras gazteak eta Ane Gabarain, Elena Irureta eta Iñake Irastorza eskarmentudun aktoreek gorpuztuten dabezan hiru sorginak dira istorio honetako protagonistak, beste personaia eta gaueko izaki batzuek batera.

XVII. mendeko Euskal Herriko sorgin-ehiza betean, inkisidoreak

mendiko herri batera heltzean diran bitartean, Kattalineak, senarrarengandik iges egin eta base-ria ixten dau, gau erdian basotik. Bertan galduta, atzetik dabilen presentzia bat sentiduten hasiko dau. Orduan, Graxiana, Beltra eta Rene andrakaz egiten dau topo. Andrak erropak garbitu bitartean, herriko bildur eta zurrumurruen gaineko ipuinak kontetan deusiez bata besteari eta Kattalineak laster ikusiko dau, bera dala istorio horreen protagonisteak. Atzenean, gaua iluntasuna bakarrik ez, arauetatik kanpo bakotxa benetan dana izan ahal izateko espazio segurua dala aldarrikatuteko filma da hau: "Gaua gauekoentzat!".



eskolako ikasleak plazara joango gara eta bertan, aurretik prest eroango doguzan Joseba Sarrionandiaren poesiak errezitatu eta berea dan Katuen kanta abestuko dogu. Goizari bukaera biribila emoteko, herriko jubiladuen laguntzeagaz eskolako umeok taloak egingo doguz.

Arrastiko zazpitan mahai-ingurua egongo da plazako Hogarrean, Joseba Sarrionandiagaz, Xabier Madariaga kazetariak gidatuta. Saioari hasikerea emoteko Zubialde eskolako ikasleek poesia errezitaldi txikitxo bat eskainiko dogu.

Euskerearen Egunak 365 egun dituan, gure eskolatik euskera urteko egun guztietan erabiliz gozatzea aldarrikatzen dogu, urtean zehar euskerearen erabilerea

handitzeko konpromisoa hartzea euskereak egunero behar eta gura gaituelako beragaz. "Gu euskara gara euskaraz".

Animau zaitenzie gugaz Euske- rearen Eguna ospatzen.

AGENDEA

ABENDUAK 1
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

18:00etan, *El mapa de mis cicatrices* liburuaren aukezpena Emma Larreta idazleagaz. Kultur Gunean.

AREATZA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero udaletxean zabalik.

Urtailaren 11ra arte Bonodenda kanpaina martxan Areatzako komertzioetan. Aliprox, Andikoa harategia, Gauzak denda, Arantza Zamalloa botikn, Estankoa, Denda Barri fruta-denda, + Ke... PAN okindegia, Vade retro ule-apaindegia eta Amaia ule-apaindegian erabili ahal dira bonuok.

ARRATIA

Abenduaren 31rarte bialdu daitekez lanak IV. Mikroipuín Txapelketarako *arratia_berbalagun@aeak.eus* helbidera. Gaia librea da, 50-100 berba bitarteko ipuinak.

Norbere zaintzarako estrategiak ikastarorako izen-emotea, urtailaren 10era arte 94 631 17 17 telefonoan (Arratiako Udalen Mankomunitatea). Ikastaroaren saioak: urtailaren 14, 21 eta 28an; zezeilaren 4, 11 eta 18an, 17:30etik 19:00etara.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik egunera liburutegia zabalik.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Astelehenetik egunera 16:00etatik 20:30era eta eskola opor egun eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

Hilaren 16ra arte, Kultur Etxeko bazkide txartela merkeago egiteko epea zabalik. Lagun txartelaren urteko banakako kuotea 30 eurokoa da. Familiakoa 25 euro kide bakoitza eta 20 eurokoa 14 urtetik beherakoentzat.

Plural y diversa erakusketea. Marisol Calzada, Arantza Pineda, Marian Daubagna, Pedro Pineda, Maite Artabe Urkiri eta Sandra Atutxaren lanak hilaren 10era arte Kultur Etxeko Erakusketa Gelan. Komisarioa: Ana Rosa Arroyo.

Abenduaren 15era arte, ikastaroetarako izen-emotea Igorreko Kultur Etxean eta *ikastaroak@igorre.net* posta elektronikoan (eskaera orriak Kultur Etxean eta *igorre.net* webgunean): *Akrobaziak* (6-9 urte), *Akrobaziak* (10-16 urte), *Akrobaziak* (+16 urte), *Akrobaziak* (maila egokia), *Txi-kung*, *Hipopresiboak*/*Pilates*, *Literatura tailerra*, *Yoga* eta *Arte eta sormen seminarioa*.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

Abenduaren 15era arte, abenduaren 16an zozketatuko dan 1.500 euroko produktuen otzarearen zozketarako txartelen banaketa Amorrortu, Argazkilune, Lezat Estetika, Merceria Josier, Kresala eta Tximeleta dendetan egindako erosketa bakoitxagaitik.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik egunera 17:00etatik 19:00etara.

ZEBERIO

Liburutegia zabalik. Astelehen, eguen eta barikuetan 16:30etik 19:30era, martitzenetan 16:30etik 18:00etara eta eguaztenetan 17:00etatik 20:00etara.

ABENDUAK 2
BEDIA

17:30ean, *Zer eta zelan jantzi gure jaietan* tailer-berbaldi-erakustaldia. Eskoletan; 19:30ean, gaztai eta ardao dastaketea trikitilariakaz girotuta. Plazan edo eskoletan, eguraldiaren arabera.

DIMA

Auzo batzarrak. 18:00etan, Bargondiako ermitan: Azmendi, Mugaratz, Bargondia eta Baltzola.

UBIDE

Mankomunidadearen kamioia baztertutako gauzak jasoteko. Zeozer atera gura dauanak datuak udaletxean emon abenduaren 1era arte.

ABENDUAK 3
ARANTZAZU

Euskerearen Eguna. 18:30ean, manifestua irakurri, kanta, Argazki Lehiaketaren sari banaketea eta txokolatea.

AREATZA

Euskerearen Eguna. 16:30ean, murala margoztu; 17:30ean, argazki herrikoia eta bingoa (sariak: Korrikako materiala); 18:30ean, txitxi-burduntzia eta gaztaina erreak.

ARTEA

Artean 365 egun euskaraz. 16:00etan, jolasak eta tailerrak; 17:00etan, plazako jantzak eta 17:30ean, txokolatea (edalontzia norberak eroan behar dau). Plazan, euria egin ezkeror frontoian.

DIMA

Euskerearen Eguna. 16:15ean, eskolan beroketea. Herri kirolak umeentzat; 17:00etan, eskolan hasita ekitaldia. "Eskolatik herrira euskerea eskuz esku, alkartez alkarte!" Amaieran txokolatea.

IGORRE

18:00etan, *Euskararen aldeko gala* Lasarte Aretoan. Inbiu Eguneko bideoa, trikitilariak,

jantzariak, bertsolariak, Euskaraldiko argazkiak eta gehiago...

LEMOA

Euskerearen Eguna. 18:00etan, Lankuren *Txepeldunak* ikuskizuna Kotxepinen. Ostean, atarian, Euskarearen Zugatza biztu. Bertan banatuko jakiezan koloretako txartel batzuen bitartez, herritarrek euskeraz gozatzeko gomendioak eskegiko dabez. Zugatzean gomendioak idazten diran bitartean, Guraso Elkarteak, txokolatea banatuko dau bertaratuentzako. "Euskeraz bizi gura dot" kamisetea salgai egongo da.

ZEANURI

17:00etan, Euskerearen Zugatza osotuko dabe ume eta gaztetxoek euskerazko berba eta esaldiakaz. Ostean argazkia eta txistorra ume eta gurasoentza; 19:00etan, *Ai gure juaneteak* Tartean Teatroa konpainiaren antzezlanak Kultur Etxean.

ZEBERIO

19:00etan, Joseba Sarrionandia eta Xabier Madariagagaz solasaldia. Plazako Ermita Zaharrean.

ABENDUAK 4
ARTEA

18:00etan, *Euskararen egoera Artean* berbaldia Kultur Etxean.

DIMA

Auzo batzarrak. 18:30ean, udaletxean: Bengoetxe, Ibarra, Zubimakurre, Landaburu, Elexondo, Ugarana, Telleri, Errementeriondo, San Balentin, Santiago, Jandonekobe, Artabe, Elexatzu, Olakoetxea, Leitoki, Errotazar, Elexpe, Bargaun eta Egriraun.

LEMOA

18:30ean, *Cementos Lemona, CRH Company* lantegiak eragiten dauan kutsadurearen gaineko Carlos Arribas Ugarteren (Ekologistak Martxan) berbaldia. Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

19:00etan, *Manttalingo alaba* emonaldi musikatua Kultur Etxean.

ABENDUAK 5
ARTEA

10:30ean, Miren Edurne Gumuzio Añibarroren *Las instituciones juridicas bajo el regimen de las Ordenanzas del Consulado de Bilbao (Siglos XV-XIX)* liburuaren harrera ekitaldia. Udal aretoan.

DIMA

18:00etan, *Txilarreko sukaldaria* dokumentala. Eskolako kamanan.

19:00etan, Txumuluxuetako Pala Txapelketearen finalaurrekoak eta finala. Frontoi txikian.

ZEBERIO

18:30ean, *Bertsoklow'n*: Onintza Enbeita, Aissa Intxausti eta Beatriz Egizabal. Plazako Ermita Zaharrean.

ABENDUAK 6
ARRATIA

Arratiako Euskera Taldeak antolatutako Durangoko Azokara urtekerea. 10:00etan, Lemoako tren estazinoan (trena 10:22); 13:00etan, manifestazinoa Landako gunetik, "Euskaraz bizitzeko, Euskararen Errepublikan" lelopean. Arratiako Euskera Taldeak antolatuta.

LEMOA

Autobusa Durangoko Azokako kontzertuetatik etxera bueltetako. 03:00etan eta 05:00etan, Lemoako tren geltokitik Dima eta Zeanurira arte.

ABENDUAK 7
IGORRE

17:30ean, zinea, *Super Charlie*; 19:30ean, *Gaua*. Lasarte Aretoan.

ABENDUAK 8
BEDIA

10:00etatik aurrera, martiaren 14an izango dan Kolazino Mendi Eguneko lasterketarako izen-emotea zabalik federauentzat martiaren 1era arte, *sportmaniacs.com* helbidean.

ABENDUAK 9
BEDIA

Abenduaren 18ra arte, Baqueirara eskietan joateko urtekerarako (urtailak 23-25) izen-emotea. Bebetekan 16:30etik 19:30era.

ABENDUAK 10
ARTEA

17:30ean, Irakurketa Kluba. Liburutegian. 18:30ean, *Xerka* berbaldia. Euskal landa-eremuko LGTBIQ + komunidadearen istorioak eta erretratuen erakusketea hilaren 17ra arte. Kultur Etxean.

BEDIA

10:00etatik aurrera, martiaren 14an

izango dan Kolazino Mendi Eguneko lasterketarako izen-emotea zabalik federau bakoentzat martiaren 1era arte, *sportmaniacs.com* helbidean.

ABENDUAK 11
IGORRE

18:30etik 20:30era, *Sutean denbora gutxi erabiliz osasuntsu jan* tailerra Txaramelagaz Sabino Arana 27an dagoan txokoan. Izena emon behar izan da. **ZEBERIO** 19:30ean, *GR11 Ibilbidea* dokumentalaren proiektzinoa eta solasaldia Elixabete Arbe, Joana Maluenda eta Bego Gonzalezegaz. Plazako Ermita Zaharrean.

ABENDUAK 12
ARTEA

19:00etan, *Euskaldungak* antzezlanak Kultur Etxean.

DIMA

18:00etan, *Akelarre: marearen kontra* dokumentalaren proiektzinoa. Eskolako kamanan.

IGORRE

10:00etatik 14:30era, Arratiako III. Enplegu Azokea. Igorreko Kultur Etxean.

Arrastian zehar, Down Sindromea Fundazioaren aldeko VI. Azoka Solidarioko salmenta eguna. Lehendakari Agirren.

LEMOA

20:00etan, Jurgi Ekizaren *Argitzala* diskoaren aurkezpen kontzertua. Kotxepin Kultur Etxean.

ZEBERIO

19:00etan, Ingot taldearen kontzertua. Plazan.

ABENDUAK 13
AREATZA

10:30etik 14:30era, nekazaritzako elikagaien produktuen eta artisautza azokea plazan.

DIMA

17:30ean, Jose Martin Bustinza "Tubi"-ri omenaldia. Frontoi handian.

LEMOA

21:00etan, Pablo Runtogetherren pintxadea, Zeinke taldearen atzen kontzertua. Gero, DJ Agata Lagataren musikea. Karabie Gaztetxean.

UBIDE

16:30ean, Olentzerori gutunak emoteko urtekerea basora; 18:00etan, Antxo ta Pantxaren *Lurrazpitik* antzezlanak.

ZEANURI

19:00etan, *Akelarre: marearen kontra* dokumentalaren proiektzinoa. Kultur Etxean.

ZEBERIO

19:00etan, Naiara Trifolen kontzertua. Plazako Ermita Zaharrean.

ABENDUAK 14
ARTEA

12:00etatik 14:30era, merkadua. "Herri bat merkatu bat". Plazan.

18:30ean, Jai Batzordea. Kultur Etxean.

IGORRE

17:30ean, zinea, *La princesa orgullosa*; 19:30ean, *Akelarre: marearen kontra*. Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

Urtekerea Ondarru eta Lekeitiara.

ABENDUAK 15
ZEBERIO

19:00etan, Arratiako Musika Eskolearen emonaldia. Plazako Ermita Zaharrean.



Y Ilovieron pájaros abenduko Igorreko Zineklubean

Abenduaren 10ean, eguaztena, 20:00etan izango da hileko Zineklubeko saioa Igorreko Kultur Etxean eta aukeratutako pelikulea *Y Ilovieron pájaros* (Louise Archambault, 2019) da. Zahartzaroaren gaineko drama kanadiar honek zibilizaziotik urten eta basora mobiduten diran hiru adinekoren istorioa kontetan dau. Baina sute handi batek euren bizitoki barria arriskuan ipinten dauan bitartean, adinekoen ezkutalekura sorpresa bi heltzean dira. Argazkilari gazte bat, Boychuck izeneko baten bila dabilana, eta 80 urtetik gorako andra bat. Bere artelanen bitartez Boychucken historia ezetuten saiatuten diran bitartean, aparteko zeozer sortuko da euren artean.

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

AUTOA KONPARTIDUTEA

Leioako campusera doazen Arratiako EHUko ikasleen bila nabil kotxea eta gastuak konpartiduteko. Telefonoa 690 307 910.

GELA BEHAR DOT ALOKAIRUAN

Pisu konpartidu baten, persona bakar batentzako gela bat behar dot alokairuan. Telefonoa: 642 912 390.

MAHAIA OPARITZEN DOT

Eskola adineko umeentzako mahai aproposa oparitzen dot. Telefonoa 630 363 971.

DORDOKEA TOPAU DOGU

Dordoka bat topau dogu Igorren, San Juan auzoan. Zurea bada, 611 617 137 zenbakira deitu.

KIMIKAKO KLEASEAK HARTU GURA DODAZ

Bigarren Batxilergoko kimika klaseak euskeraz jasoteko nonoren bila nabil abuztuaren hasieratik, ordutegi malguagaz, gero, klaseak urte osoan zehar izateko asmoz zapatuetan ordu biz. Deitu: 638 889 851.

SALTZEAN DOT

Ezkarako aparadore bat, 1,50eko mahai eta aulkiak, haretx egurrezkoak. Oso egoera onean. Banan-banan erosi ahal dira. Interesdunek deitu 657 777 542 telefonora.

GITARRA KLEASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rock School. Gitarra klaseak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu 664 303 528 telefonora edo idatzi a.harillo.gracia@gmail.com helbidera.

TABERNARI EUSKALDUNEN BILA GABIZ

Axular Herriko Tabernan tabernari bi behar dira; astean zehar behar egiteko bata eta astegoienetarako bestea. Interesdunek tabernan bertan galdetu, axularke@gmail.com helbidera idatzi edo telefonoz deitu: 94 673 70 92.

BIZIKLETEA SALGAI

Umeentzat, koloretsua, Dora Esploratzailearen marrazkiek. Lauzabost urteko umearentzat. Errobera txikerrak, aurrean zestillea eta atzean pelutxarentzat kutxa. Egoera eta itxura onean. Eskatu edo ikusteko deitu: 670 825 753.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Lemoako Kultur Etxeak emondako bina sarrera Jurgi Ekizaren kontzerturako.

Rosana Pedrosa (Areatza)
Jon Bengoetxea (Igorre)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Paul Urkijoren Gaia filmarako.

Hektor Rodriguez (Igorre)
Begoña Amundarain (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 23 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
- SABINO ARANA 38
IGORRE
- TEL. 94 631 92 00

GORBEIALDE
LANDA GARAPENA
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO
GARAPENEAN LAGUNTZEN

Ipini zure iragarkia Begitun
649 979 115
inigoirua@begitu.eus

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA
Blitzo dego jakitzeko
-Salmentan zein alokairuan
Lurak (erakitzeko, landak, basak...)
Etxebizitzak (pisoak, berrak, etxak...)
Garaioak
Lokal komertzialak
Pabiloiak...
-Soluzioak
Bidera dego proiektuak
-Irakin berriak erakitzeko
-Erakundeak
-Arkitektura-proiektuak
-Borne diseinua
-CEE eta IIE-ak
-Hirigintza aholkularitza
-Negozioak irekitzeko
kudeaketa
arratia
INMOBILIARIA
Garaioak: Agirre 28, bilera - Agirre
Ingeniaria: 94 631 31 81 - 435 96 31 31
Ofizialak: 94 631 31 31
akzioak: 435 703 111
arratia@arratia.com

Kili~Kili
Anjoa eta Punturak
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 43 81

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis
Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3 - 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-40-54

Olaetxe
OPTICA SINTURA
Graduazioak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptica@hotmail.es

ASESORIA
Gorbeialde
Juridikoa - Fiskala - Landak - Kontularitza
Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

OPARI BONUAK

— 2025 —

OPARITU ONDOIZATEA

*Sartu gure webgunean, aukeratu
opari bonua, inprimatu eta listo!*

ZIRKUITU
TERMALAK

MASAJEAK

BIKOTE-KAPRITXOAK

ERRITUAL NATURALAK

EGONALDIAK

HOTELEAN

HIDROTERAPIA

ESTETIKA & KOSMETIKA

25 €tik aurrera

hotelbalnearioareatza.com

hotelbalneariorduna.com

